

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

«Filipinetako azkenak»,
Katalunia eta gu RAMON SOLA > 11

JON MAIA SORIA: «Euskal Herria
'abuela' eta 'abuelo' erdaldunen biloba
euskaldunez beteta dago» > 22

2017ko irailaren 16a | XI. urtea • 535. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ARRAZAKERIA AEB-ETAN, INOIZ ITXI GABEKO ZAURIA

ESKLABOTZA ETA BERE OINORDETZA BETI IZAN DIRA ARAZO ITURRI AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN ETA ASKO IZAN DIRA ARRAZA ARTEKO HARREMANEI ETA TENTSIOEI BURUZ HITZ EGIN ETA IDATZI DUTENAK. IDATZI HORIETAKO BATZUK BERRESKURATZEA ARIKETA INTERESGARRIA DA OSO GARAIOTAN. > 4 David MACNEW | AFP

**AEBetako arrazakeria ulertzeko
hamar testu** 04

**Inguru gatazkatsuetan lan egiten
duten boluntarioen aurkako
erasoak areagotu egin dira** 08

**Baratza aretoa, Gasteizko arte
eszenikoak eta oro har kultura
sustatzen duen gunen burujabea** 12

**Lege legalak eta ilegalak,
demokrazia eta sofisma** 16

**Haurrek ikasi eta esperimenduak
egiteko liburua** 18

E.lkarrizketa: Jon Maia Soria 22

Derion, Bizipoza jaia 26

In fraganti: Andrea Oubiña 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Akordiorik gabeko banaketaren kostua
- 10 **Saioa Aginako:** Oztopoak gaitzen
- 11 **Ramon Sola:** «Filipinetako azkenak», Katalunia eta gu
- 16 **EXPRAI**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Iraila
- 21 **Nerea Ibarzabal:** Pisua
- 27 **Miren Azkarate:** Ikusgarria
- 27 **Antton Izagirre:** Batasun emozionala
- 30 **Katrin Arzuaga:** Simulazioak eta laborategi birtuala



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Akordiorik gabeko banaketaren kostua

Beti saldu digute katalanek diruari asko begiratzeko ziotela eta euskaldunok, aldiz, motibazio nobleak genituela. Egungo egoerak kontrakoa esaten digu hain justu. Jeltzaleak harro dabil-tza Madrili lau sos ateratzea lortu izanagatik. Katalanak, ordea, emandako hitza betetzera doaz eta oztopo guztien gainetik autodeterminazio eskubi-dea egikaritzeko urratsak egiten ari dira. Eta inork ez du diru konturik aipatu. Beharbada, estereotipo horiek espaino-lek ezarritakoak dira eta denokitsu-itsuan sinetsi ditugu. Kontuak kontu, Madrilek beti egin ditu negoziak batzue-kin zein besteekin, beti erosi izan ditu bi herriotako orde-zkarien borondateak. Baina krisi ekonomikoarekin batera, borondateak erosteko garaia amaitu zen, batez ere, baliabi-deak amaitu zirelako. Hortik aurrera, batzuek temati jarrai-tu dute ohitura zaharrekin, eta, besteek, berriz, beldurra- gainditu eta bide propioa egitea deliberatu dute. Eta estere-otipoak apurtu dituzte.

Edozein kasutan, urriaren 1eko erreferendumaren kan-paina hasiera honetan gai ekonomikoak inortxok ere ez aipatzeak atentzioa ematen du. Soilik enpresari elkarteek egin dute hitzen bat edo beste, baina prozesuaren kostuaren inguruan. Antzeko erreferen-dumak egin izan direnean, Quebec edo Eskozian adibi-dez, argudio ekonomikoak ahoz aho ibili izan dira. Gaine-ra, independentziaren aurka-koen argudio nagusiak ekono-mikoak izan ohi dira. Jendea beldurtzeko independentziak kalte ekonomikoak ekarriko dituela esan ohi dute. Horrela, zorigaitz guztiak iragartzen dituzte: enpresek alde egingo dute; gelditzen direnek merkatuak galduko dituzte; langa-bezia igoko da eta pobrezia zabaldu... Babes sozialaren gain-behera izaten da ohiko beste mehatxu bat, batik bat pen-tsioekin lotuta. Estatu independenteak ez omen du diru nahikorik izango pentsioak ordaintzeko; maiz errepikatzen da ideia hori. Eta hala, ekonomiarekin lotutako mehatxuak bat bestearen atzetik sartzen dituzte eztabaida politikoan.

Aldiz, oraingoz Katalunian entzun dugun argudio baka-rra Europar Batasunarena izan da. Katalunia, lehen Eskozia bezala, independentzia eskuratuz gero Europar Batasunetik kanpo geldituko dela diote unionistek. Horri gehitzen diote Katalunia eurotik kanpo geldituko dela, merkatu bakarrera sarrera galduko duela, eta abar. Baina Europar Batasunetik

kanpo geratzearen argudioa ikuspuntu politiko batetik era-bili dute. Unionistek Katalunia nazioen klub garrantzitsu batetik at izango dela azpimarratu nahi izan dute, hau da, galera ekonomikoak baino, independentziak Kataluniari estatus galera bat ekarriko diola irudikatu nahi izan dute.

Eztabaida ekonomikoa baztertzeak ondorio batzuk ditu. Alde batetik, eztabaidari heltzeak praktikan erreferendu-maren onarpena ekarriko luke. Erreferenduma ukatzean, baina, katalanak konbentzitzeari ere uko egin diote unio-nistek. Independentziaren aurkako argudio asko eman be-harrik ez dute izan: aurkaria menderatzea da Estatu espai-nolaren jomuga bakarra. Horretarako argudioak sobera daude, indarra besterik ez da behar. Baina mehatxuek po-rrot egitean, baliabiderik gabe gelditu dira. Hori horrela iza-nik, unionistek beraientzat garrantzia duen galera bakarra Espainia zatitzea dela onartu dute praktikan; hau da, beste guztia horren menpe dagoela, kalte ekonomikoak eta ongi-

Unionistek beraientzat garrantzia duen galera bakarra Espainia zatitzea dela onartu dute praktikan; beste guztia horren menpe dagoela, kalte ekonomikoak eta ongizate mailako kalteak barne

zate mailako kalteak barne. Kontuan hartu beharreko posi-zioa independentziaren bideragarritasun ekonomikoari buruzko etorkizuneko eztabaidetan.

Ekonomia mendeko tokian kokatu dute unionistek, poli-tikaren azpian. Horrela behar du. Hala ere, erabaki politiko-en kostua aintzat hartu behar da beti. Ematen du espaino-lak prest daudela ontzi guztiak galtzeko mendekotasuna mantendu ahal izateko. Baina horrela dena galduko dute. Akordiorik gabeko banaketa emanez gero, aktibo eta pasibo bereizketarik ez da egingo. Estatu espainola geldituko da aktibo guztiekin, Kataluniako lurraldean daudenak salbu, eta pasibo guztiekin, hau da, zor guztiarekin. Eta Moody's agentziak aste honetan bertan gogoratu du Kataluniak bil-tzen duela Estatuaren aberastasunaren % 19 eta biztanleria-ren % 16. Akordiorik gabe, zorraren zama Estatuaren bizka-rrean geratuko da. Baina bizkar estuagoak izango ditu. •

ARRAZAKERIA AEB-ETAN: HAMAR TESTU, INOIZ ITXI GABEKO ZAURIA ULERTZEKO

Irati Jimenez


Esklabotza eta bere oinordetza beti izan dira arazo iturri Ameriketako Estatu Batuetan eta asko izan dira arraza arteko harremanei eta tentsioei buruz hitz egin eta idatzi dutenak, baina gutxitan hartu du haien lanak Trump presidentearekin hartu duen garrantzia.

Ez da erraza Donald Trumpen Gobernuaren eskandaluen zerrenda egitea, ezta kronologia bat egitea ere. Errusiako Gobernuak hauteskundeetan izan zituen ustezko esku hartzeen inguruko albisteak, adibidez, egunero berritzen dira eta denborak esango du noraino hel litekeen. Denborak eta Robert Muller fiskal bereziak, bera baita Errusiaren haritik tiraka ari dena, Kongresuak hala eskatuta. Momentuz, oster, eta horrek ematen duenaren zain, beste sute asko ditu Trump presidenteak mahai gainean. Azkena, eta momentuz zalapartarik handiena eragin duena, arrazarena izan da.

«Bi aldeetan» jarri zuen erantzukizuna presidenteak Virginiako Charlottesville hirian emakume baten heriotzaren ondoren eta hortxe bukatu ziren askorentzat, tartean enpresa handietako hainbat bururentzat, presidente honekin zituzten azken itxaropenak. Izan ere, hildako emakumea, Heather D. Meyer, militante antifaxista zen. Aurrean zituenak eta bere heriotza eragin zutenak, svastikadun gizonak, «judu batek ez du nire lekua hartuko» aldarri egiten duten neonaziak, suziriak eskuetan Virginiako gaua hartu zuten supremazistak. Eskuina batzea dute helburu eta Trumpen Gobernu politikak arrazistak egiteko presionatzea. Zurien diskriminazioa salatzen dute eta esklabotza mantendu nahi zuen konfederazioaren sinboloak erreibindikatzen dituzte, sinbolo horiek kentzeko antolatu den mugimenduaren kontra. Mugimendu horrek duela bi urte hartu zuen indarra. Dylan Roof izeneko gizon zuri bat eliza beltz batera sartu zen eta «beltzak hilko ditut» aldarrikatuz, konfederazioaren sinboloen zale honek berderatz lagun hil zituen.

Sinbolo horiek nahikoa iraun dutela pentsatu zuten askok eta Virginian oldartu dira haien kontra Ku Klux Klaneko kideak, alt-right mugimenduko militanteak, nazionalismo zuriaren bozeramaileak. Hain nabarmenki dira salagarriak, eskuetan zeramatzaten suziriak egin zituen enpresak berak ere gaitzetsi egin dituela. Presidenteak, oster, haien artean «jende ona» ere badagoela esan du, eta, besteak beste, Black Lives Matter mugimenduak esandakoa agerian geratu da berri: arrazaren zauria itxi gabe dago eta normala da, tarteka, odola borborka isurtzea.

Zapalkuntza izugarria eta bikoitza dago Ameriketako Estatu Batuen oinarrian. Amerikako bizilagunen genozidioa eta Afrikatik haien gogoaren kontra eka-



Poliziak, irailaren 3an San Diegoko Chicano Parken supremazistek egindako manifestazioa babesten.
Sandy HUFFAKER | AFP

ritako milioika lagunen esklabotza. Gaiztakeria horren kontra, hasieran, eta horren oinordetzaren kontra, gero, hitz egin dute askotan abertzaleek, militanteek, poetek, idazleek, politikariek, aktibistek. Politikak hartu duen giro zitalarekin ez da une txarra esan zutena gogoratzeko eta arraza arteko harremanen historia ulertzeko balio duten hamar testu hauek berreskuratzeko.

«THE NEW COLOSSUS» (ENMA LAZARUS)

1883an, Enma Lazarus (1849-1887) poetak Askatasunaren Estatua egiteko diru bilketa baterako eskaria jaso zuen eta etorkinei ongietorria emateko testu bat prestatu zuen. Horrela sortu zen «The New Colossus», munduko migranteen babesleku izan nahi zuen estatu baten ereserkia. Egun, poema hori estatuaren oinarrian dago eta boladan jarri da, Trump Administrazioak etorkin gazteenak babesteko DACA legea arriskuan jarri zuenean, kazetari batek bere prentsa arduradunari irakurri ziolako.

Merezi du etorkinen nazio honen oinarrian dauden bermeak gogoratzeko Rodasko Kolosoari aipamen egiten dion poema hau irakurtzea. Greziar garaiko

estatua erraldoiaren lekuan beste norbait dagoela aldarrikatzen du, mundu osoko erbesteratuen ama izatera etorri den emakume bat. Antzinako inperioek haien loria gorde dezaketela dio, berak bilatzen dituenak besteak direlako, «nekatuta daudenak, txiroak, askatasun egarri direnak».

Non aurki daiteke: Sarean nonahi, ingelesez (Wikipedian bertan) zein munduko ia edozein hizkuntzatan.

«AM I NOT A WOMAN?» (SOIJOURNER TRUTH)

Beste izen batekin jaio zen, esklabotzara behartuta, baina aske izatea lortu zuen eta zapalkuntzaren kontra ahotsa altxatzea erabaki zuen, emakumeen eta beltzen eskubideak, biak aldarrikatuz. Sojourner Truth akbistibarena da Ameriketako Estatu Batuen historian egin den diskurtso publikorik ederrenetako bat, «Am I not a woman?».

1863an eman zuen, Akron hirian (Ohio) antolatutako Emakumeen Biltzarrean. Beste batzuek transkribatuta ezagutzen dugu, generoaren eta arrazaren zapalkuntzak azaleratu zituen testu gogoangarri hau, iparraldeko emakumeen eta he-



goaldeko beltzen mugimenduak aldarri bakar batean biltzen dituen, «ez ote naiz neu ere emakumea?».

Non aurki daiteke: Itziar Zigaren “Mal-ditas” liburuan (Txalaparta, 2014) egileari buruzko biografia eta analisi feminista aurki daitezke, bere testuaren itzulpena-rekin batera.

**«NARRATIVE OF THE LIFE OF FREDERICK DOUGLASS, AN AMERICAN SLAVE»
(FREDERICK DOUGLASS)**

Soujourner Truth bezala esklabo jaio zen eta askatasuna lortutakoan abolizionismoaren ahots bilakatu zen. Frederick Douglass ezinbesteko izena da Ameriketako Estatu Batuetako beltzen historian, nahiz eta Trump presidenteak ez dakien nor den, antza, aurten orainaldian hitz egin zuelako berari buruz, biziko balitz bezala. Ez da bizi baina bere autobiografia da sasoi berean esklabo ohiek idatzi zituzten testu guztien artean eragin handiena izan zuena.

Egon zen bere sasoiaren testua ezin zuela beltz batek idatzi esan zuenik, kalitate handiegia zuelako. Baita kalitate hori azpimarratu zuenik ere, Margaret Fuller li-

«Dreamers» etorkin gazteei laguntzeko programaren alde Las Vegasen eginiko manifestazioa, irailaren 10ean. Alboan, DACA programa bertan behera uzteko egitasmoa salatzeke manifestariak Jeff Sessions fiskal orokorraren irudia botatzen, Justizia Departamentuaren aurrean, Washingtonen, irailaren 6an.
Ethan MILLER
Chip SOMODEVILLA | AFP

Zapalkuntza izugarria eta bikoitza dago AEBen oinarrian. Amerikako bizilagunen genozidioa eta Afrikatik haien gogoaren kontra ekarritako milioika lagun esklabotza. Gaiztakeria horren kontra askok hitz egin dute

Egun, «The New Colossus» poema Askatasunaren Estatuaren oinarrian dago eta boladan jarri da, Trump Administrazioak etorkin gazteenak babesteko DACA legea arriskuan jartzean, kazetari batek bere prentsa arduradunari irakurri ziolako



teratur kritikariak kasu. Mundu guztiak irakurri beharreko lana zela esan zuen, «ikus dezaten noraino hel litekeen esklabotzak ito zezakeen gizon honen adimena, aberats harroen irainak eta salerosle ankerren kolpeak jasan dituen gizon honen adimena».

Non aurki daiteke: Gaztelaniaz behin baino gehiagotan argiratu izan da, azkena Alcala argitaletxeak “Vida de Frederick Douglass, un esclavo americano” izenarekin. Ingelesezt mila aldiz argitaratu da eta doan aurki daiteke sarean, hainbat webgune politiko eta historikori esker.

**«I KNOW WHY THE CAGED BIRD SINGS»
(MAYA ANGELOU)**

Bi baino ez dira Ameriketako Estatu Batuen historian presidente baten kargu hartzean parte hartu duten poetak. Kennedy hautatu zutenean Robert Frost entzun zen “The Gift Outright” irakurtzen («lurra geurea izan baino lehen geu ginen harenak»), eta, Bill Clintonek kargua hartu zuenean, emakume beltz txiki eta indartsu bat altxa zen bere ondora, “On the Pulse of Morning” poema irakurtzera («luzaroegi ibili zara/ iluntasunari begira/ ahoan hitza txistua bezala/ sarraskirako armatua»).

Maya Angelou zen, legenda amerikarra, bizitza honen zaurgarritasunari aurre egiteko irakurle batek aurkituko duen bidelagunik onenetakoa. Idazlea izan zen, aktibista, prostituta, aktorea, ekoizlea eta beste mila gauza. Batean kabitu ez eta zazpi memoria liburu idatzi zituen, haxe lehena, kemenez eta umorez idatzitako memoria liburua, ezinbestekoa segregazioaren sasoiaren beltza izatea zer izan zen jakin nahi duen ororentzat.

Non aurki daiteke: Gaztelaniaz bosgarren edizioa egin du Libros del Asteroide



argitaletxeak Maya Angelouren lehen memoria liburuarekin, “Yo sé por qué canta el pájaro enjaulado” izenekoa.

«AUTOBIOGRAPHY» (MALCOLM X)

Bikaina, mingarria, erabakigarria. Halaxe deskribatu zuen “New York Times” egunkariak Malcolm X-en biografia argitaratu zenean, 1965ean. Pantera beltzen mugimenduaren inspirazio iturri bilakatuko zen gizona balaz hil eta gutxira izan zen, Alex Haley kazetariak Malcolm berarekin

Ohitu gara beltza bat AEBetako presidente gisa ikusten, baina ezin da ahaztu horrek zer-nolako lorpena zirudien 2008an. Une hartan, esperientzia politiko askorik gabeko abokatu beltz bat ez zen bere alderdiak buruan zeukana

Angela Davisen «Emakumeak, arraza eta klasea» emakume beltzek esklabotzatik jasandako menderakuntza ulertzeko ezinbesteko lana da, baina menderakuntza horri aurre egiteko izan dituzten estrategiak ulertzeko tresna ere bai

egindako elkarlanari esker. Malcolm X-en bizitza eta esperientzia politikoa ia thriller baten modura kontatuta daude, bere heriotzara doala dakien gizonaren tonu ia apokaliptikoarekin. Leherkari baten indarra du liburu honek, indarkeriaren eta arrazakeriaren sustraiak ulertzeko eta garbitzeko etengabe iritziz aldatzeko prest egon zen gizon argi, zintzo eta adoretu baten testigantza bizia dira bertan jasotako kontakizunak, heriotzaren ia beste aldetik idatziak diruditen arren.

Non aurki daiteke: Euskal Herrian Txalapartak argitaratu zuen, “Vida y voz de un hombre negro” izenarekin (Txalaparta, 2000). Bere diskurtso politikoen zatiak ere ageri dira, liburua osatzeko.

«I HAVE A DREAM» (MARTIN LUTHER KING JR.)

1999an Wisconsin-Madison unibertsitateak Ameriketako Estatu Batuetako akademiko eta irakasleei galdetu zien zein zen haien ustez XX. mendeko hitzaldi publikorik garrantzitsuena. Bada, 1963ko abuztuaren 28ra begiratu zuten, Washingtonera 250.000 gizon eta emakume ekarri zituen manifestazio erraldoira. Egun hartan, Martin Luther King Jr. abade baptistak beltzen eskubide zibilak, laboralak eta politikoak eskatzeko hitz egin zuen, etxebizitza duina, hezkuntza sistema ez-segregatua, boto eskubidea, bidezko enpleguak. Erretorikaren historian mugarria jarri zuen eta bere burua Lincoln edo Jeffersonen pare jarri zuen, arazo politikoei maila espirituala eman zien, arrazakeriaren bekatu originalarentzat berdintasunaren erredentzioa proposatuz. Bere ardura erlijiosoak konpartitzen ez dituztenentzat ere hunkigarria bilakatzen den ereserkia osatu zuen, aberri hobe baten promesean oinarritutako kantu ederra.

Non irakur daiteke: Wikisources entziklopedian hitzaldi osoa dago, ingelesez, eta Wikipedian bertan euskaraz aurki daiteke.

«WOMEN, RACE & CLASS» (ANGELA Y. DAVIS)

Asko hitz egiten da interseksionalitateaz feminismoaren baitan, kategoria kulturalen, gizarte arlokoen zein biologikoen arteko harremanak ulertzeko eta gizaki batek bizi ditzakeen zapalkuntza eta pribilegio egoerak hobeto ulertzeko. Arlo horretan, ohiko bilakatu da Angela Y. Davisen izena eta lanak aipatzea. Asko ditu interesgarriak baina “Emakumeak, arraza eta klasea” da emakume beltzek esklabotzatik jasan duten menderakuntza ulertzeko lan ezinbestekoa, baita mendera-

Goian, Angela Davis ekintzaile politiko, iraultzaile eta feminista afroamerikarrak idatzitako «Askatasuna, etengabeko borroka bat» liburuaren itzulpenaren aurkezpena, Donostian, azaroaren 29an. Behean, Davis bera GARAK antolatu zuen mahai inguruan, 2016ko otsailean. Matthew CAVANAUGH | EFE

Donald Trump presidente estatubatuarraren politika arrazista salatzeke irailaren 10ean Las Vegasen egindako mobilizazioa.
Ethan MILLER | AFP



kuntza horri aurre egiteko izan dituzten estrategiak eta erresistentziak ulertzeko tresna ere.

Non irakur daiteke: 2015ean Angela Davis Euskal Herrira etorri zen, Arnaldo Otegi kartzelan zela, hura bisitatzeko asmoz. Ez zuen lortu baina bere bisitak hauspoa eman zion jadanik bere lanarekiko zegoen zaletasunari eta ordutik hiru dira Euskal Herrian argitaratu diren bere liburuak. “Emakumeak, arraza eta klasea” (2016) argitaratu zuen Jakin-Elkarrrek, “Askatasuna, etengabeko borroka bat” (2016) Katakarak argitaletxeak eta horixe bera gaztelaniaz atera du bere harpidedunentzat Txalapartak, “La libertad es una batalla constante” izenarekin. Euskal Herritik kanpo askotan argitaratu dira Angela Davisen lanak, mundu osoko hizkuntzetan.

«A MORE PERFECT UNION» (BARACK OBAMA)

Munduko biztanleok ohitu gara beltz bat Ameriketako Estatu Batuetako presidentegisa ikusten, baina ezin da ahaztu horrek zer-nolako lorpena zirudien 2008an. Momentu hartan, esperientzia politiko askorik gabeko gizarte ekintzaile eta abokatu beltz bat ez zen bere alderdiak buruan zeukana John McCain gerra betearnoari aurre egiteko. Baina ezustean eta jendaurrean hitz egiteko bere gaitasun harrigarriari esker Barack Obamak izendapena irabazi zion Hillary Clintoni eta Etxe Zuria errepublikanoei. Gaitasun horren adibide da Philadelphian eman zuen hitzaldi hau, bere mentore Jeremiah Wright abadeak zurien eta juduen kontra egindako adierazpen batzuek bere kanpaina kolokan jarri zutenean. Arrazaren arazoari aurre aurre begiratu zion eta une hartan askok sinetsi zuten zauria

sendatzeko gai izango zela. «Gaur hasi baino ez gara egin. Baina hementxe bihurtzen da gure batasuna indartsuago. Gu baino lehen beste horrenbeste belau-naldi konturatu diren bezala konturatzten gara abertzale talde batek duela 221 urte sinatu zuen aldarrikapena hasiera baino ez dela, hementxe ekingo diogu perfekzioari».

Non aurki daiteke: YouTuben egon zen lehen egunean hitzaldiaren bideoak 1,3 milioi ikustaldi izan zituen. Transkribapen ugari daude ingelesez, tartean Wikipedian. Gaztelaniaz transkribapen bat baino gehiago aurki daiteke “Hacia una unión más perfecta” izenburupean.

«BAD FEMINIST» (ROXANNE GAY)

Bospasei orrialdeetako saiakera laburrak dira liburu hau osatzen dutenak eta arra-

zaz gain beste gai asko ukitzen dituzte. Abortua, eskubide zibilak, gizarte sareetan erabiltzen dugun hizkuntza, bortxaketaren kultura, pelikulak edo harreman sexualak, gai horiei guztiei buruzko analisia egiten du Roxanne Gay idazleak, askotan, umorez, eta, beti, garaiotan ezohikoa den ardurarekin. Bere analisisetan zapalkuntza ez da bizitza osorako kondena bat, pribilegioa ez da inor fiskalizatzeko amarru bat eta inor ez da bizitza osorako biktima.

Non irakur daiteke: Iaz argitaratu zuen Capitan Swing argitaletxeak “Mala feminista” izenarekin eta bigarren edizioa kaleratu du aurtun.

«I, TOO, SING AMERICA» (LANGSTON HUGHES)

Poema bat bukatzeko, Langston Hughes (1902-1967) idazlearena. Jazz poesia deitu zenaren aitzindaria izan zen eta 1920ko hamarkadako Harlem auzoko “Berpizkundera” parte hartu zuen. Arrazaren arazoek ez dutela norbere abertzaletasuna mugatzen, horixe beltzen literatur historia errepasatzean beti gogoratzen den testu labur honen mezua.

Neu ere

Neu ere Amerika kantatzen ari naiz

*Anaia iluna naiz.
Sukaldean jateko agintzen didate
norbait datorrenean.
Baina barre egiten dut,
eta ondo jaten dut,
eta sendotu egiten naiz.*

*Bihar, mahaira eseriko naiz
norbait datorrenean.
Orduan,
inor ez da ausartuko
«jan sukaldean»
niri esatera.*

*Gainera,
ze ederra naizen ikusiko dute.
Eta lotsatu egingo dira.*

Neu ere banaiz Amerika.

GERRA LEGEEN PORROTA

Nazio Batuetako idazkari nagusiak zibilak eta kooperanteak babesteko deia egin du

📁 **ATZERRIA** / Jose Anjel Oria

Pasa den abuztuaren 19an, Laguntza Humanitarioaren Nazioarteko Eguna zela eta, Nazio Batuetako hainbat ordezkari gerra eta gatazka testuinguruan lan egiten duten boluntarioen aurkako erasoek gora egin dutela salatu eta gerra legeek porrot egin dutela ohartarazi zuten. Astelehenean beste kooperante bat hil zuten.

Lorena Enebral Perez 38 urteko fisioterapeuta joan den astelehenean hil zuten Afganistango Mazar-i-Xarif hirian, Gurutze Gorriaren instalazioetan lanean ari zela. Nazioarteko erakundeak utzi egin zuen Afganistan joan zen otsailean jasan zuen eraso baten ondorioz, eta orain aste batzuk hasi zen berriz lanean aipatu hirian, ipar-mendebaldeko leku gehienetan lan guztiak bertan behera utzita baitituzte. Otsaileko gertaera izugarri hartan sei lankide boluntario hil zituzten eta beste bi bahituta eraman, Jawzjan iparraldeko probintzian konboi bat eraso egin ondoren.

Ahmad Ramin Gurutze Gorriko eledunak esplikatu duenez, kooperante espainolak besoak edo hankak galdutako ume, emakume eta gizonei ematen zien laguntza. «Oinez berriz nola hasi eta besteen laguntzarik gabe jaten erakusten zien», azaldu du Raminek.

Erakunde humanitarioetako langileek izaten dituzten lan baldintzak hobeto ulertzeko ere balio du Enabral Perezen aurkako erasoak. Erasotzailea, Poliziaren arabera, Muhammad Naseem 22 urteko gaztea zen, 3 urte zituenetik laguntza medikua zentro berean jasotzen zuen gizona. Bere gurpil-aulkian ezkutatu zuen kooperantearen aurka erabiliko zuen arma. Baghlan probintziatik zetorren, beste gurpil-aulki bat erabiltzen zuen 19 urteko gazte batekin batera. Behin egin zuen tiro Naseemek, bigarrena egiterako atxilotu


egin zuten-eta. Instalazioak segurtasun konpainia pribatu batek zaintzen zituen, ez Afganistango segurtasun indarrek. Erasotzailea eta laguna berehala atxilotu zituzten. Baghlan probintzian indar handia dute talibanek.

Gerra nolabait arautzeko sortu dugu gizakiok Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa. Askok “gerra legeak” esaten diete. Borrokatan era zuzenean esku hartzen ari ez direnak babestea litzateke helburua; baita borroka horietan gehiago esku ez hartzeko erabakia hartu dutenak ere. Gainera, gerran erabil daitezkeen baliabideak eta metodoak mugatzea ere gerra legeen helburu da. 1949an, Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, sinatu zen Genevako Konbentzioak dio gerra denboran zibilak errespetatzea ezinbestekoa dela.

Baina egunero ikusten dugun errealitateak oso bestelako joera erakusten digu. Zibilak jomuga bihurtu dituzte leku askotan, helburu politikoak lortzeko. Stephen O’Brien Gai Humanitarioetarako Nazio Batuen idazkariordeak eta Jan Egeland Siriara bidaltzen den laguntza koordinatzen duen gizonak elkarrekin sinatu zuten abuztuaren 19an plazaratutako artikulua bat Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak porrot egin duela nabarmenduz: «Gauza bat oso garbi dago: gerra legeak bertan behera geratu dira toki askotan».

Egun horretan ospatu zen Laguntza Humanitarioaren Nazioarteko Eguna, «krisi humanitarioen lehen lerroan hil diren senideak, lagunak eta lankideak

Zibilak hondakinak kentzen Ameriketako Estatu Batuek beraien etxebizitzetara airez eraso ondoren, Afganistaneko Achin barrutian, Nangarhar probintzian, hilaren 12an. Bonbardaketa Estatu Islamikoari zuzenduta egon arren, zibilak izan zituen jomugan. Irudi horren alboan, Errusiako ingeniari militar bat lurreko minak kentzen Siriako Alepo hirian, hilaren 13an. Noorullah SHIRZADA Vadim SAVITSKY | AFP




omentzeko aukera ezin hobea», egileek idatzi zuten.

Testuan gogorarazi zuten azken urtean erakunde humanitarioek 158 eraso jasan dituztela, eta horietan 101 kooperante hil dituztela, beste 98 zauritu eta 89 bahitzeaz gain.

«Erasoak gero eta basatiagoak dira». Bakarren bat nabarmendu behar izanez gero, Egelandek eta O’Brienek iazko uztailaren 11n gertatutakoa azpimarratzen dute: Hego Sudango gerra zibilean, makina bat kooperante juba hiriburuko Terrain etxebizitzak konplexuan bizi ziren eta dozenaka soldadu bertaratu ziren: emakumeak bortxatu egin zituzten, gainerakoak begiratze-rahartzen zituzten bitartean, eta kazetari bat hil egin zuten.

Nazio Batuetako adituek egin duten irakurketaren arabera, «erasoarekin soldaduek oso mezu garbia igorri zioten komunitate humanitarioari: gure neutraltasuna dagoeneko ez dela errespetatzen, geure lan humanitarioak dagoeneko ez gaituela babesten».

Langile humanitarioen aurkako erasoak ez dira herrialde bakar batean gertatzen ordea. Nazio Batuek emandako datuen



arabera, azken bi hilabeteetan erasoak jasan behar izan dituzte Sirian, Somalian, Afganistanen, Hego Sudanen eta Afrika Erdiko Errepublikan: hildakoak, zaurituak eta bahituak

Erasotzaileentzat, jomuga guztiak ez dira berdinak izaten. Badirudi osasun langile eta instalazioak lehentasunezkoak direla beraientzat. 2016an 979 osasun langile erasoen biktima izan ziren. Egelandek eta O'Brienek gogorarazi zuten MSF Mugarik Gabeko Medikuek Yemenen kudeatzen zituzten bi erietxe bonbardatu egin zituztela, nahiz eta gobernuak kanpoko erakundeko arduradunek borrokan ari ziren bi aldeei instalazioen koordinatuak alde zurretik eman zizkieten.

Aurrera begira jarritz gero, larriena da eraso horiengatik ez dela ezer ordaintzen, inpunitatea nagusi dela alegia: «Eraso horietako asko ez dituzte inoiz ikertu, eta ikerketaren bat abian jartzen den kasu arraroetan, lana ez da behar bezala egiten. Eta hori ere oso mezu garbia da, ulertu nahi duenarentzat: eragile humanitarioen aurkako indarkeria baimenduta dago eta aldeek Nazioarteko Zuzenbideak

esaten duenari jaramon ez egiteko aukera dute, ondorioz jasan beharrik izan gabe».

Nazio Batuetako arduradunek salatutako eraso horietako asko Estatu baten babesik ez duten talde armatuek eginak dira, baina eragindako biktima kopuruari erreparatuz gero, «Estatuak dira hildako eta zauritutako kooperante gehien eragin duten erasoen arduradunak». 2015ean eta 2016an Estaturen baten zerbitzura zeuden agenteek 54 langile humanitario hil zituzten.

Kooperante bat hiltzen edo zauritzen dutenean, erakundeak erabaki dezake herrialde horretatik alde egitea edo, kaltea hain larria izan ez dadin, bidaltzen duten laguntza murriztea.

Gaur egungo gerratan esku hartzen duten talde armatu batzuek laguntza humanitarioaren banaketari oztopoak jartzen dizkiote «taktika moduan, frontearen lerroaren 'alde okerrean' bizi diren komunitateak laguntzarik gabe gera daitezten. Ondorioz, komunitate horiek erabat utzita geratzen dira eta gero bere onera itzultzeko urte asko behar izaten dituzte».

«Umeek beharrezkoak dituzten tratamenduak har ditzaten

oztopatzen dute talde horiek, familiek elikagaiak lor ditzaten, komunitateek babesa aurkitu dezaten», nabarmendu dute bi egileek.

HIRU PROPOSAMEN

«Ezin dugu onartu kooperanteek propio egindako erasoen biktimak izaten jarraitzea», esan dute Stephen O'Brienek eta Jan Egelandek. Hori lortzeko «sistema bera aldatu behar da». Illo horretan, «pertsonek askok bizirik jarraitzeko aukera izan dezaten», oinarritzko hiru proposamen egin dituzte, inpunitateari ateak ixteko, erakunde humanitarioen neutraltasunari eusteko eta erakunde horiek dituzten bertako langileak babesteko.

Inpunitateari dagokionez, egileek uste dute estatuek Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren bortxaketa larriak ikertu eta zigortu egin behar dituztela: «Estatuek, batez ere indartsuek, gatazkan esku hartzen duten talde guztiei exijitu behar diete, baita bere indar propioei ere, nazioarteko arauak errespetatzeko». Zentzu horretan oso garrantzitsua izan daiteke nazioarteko presioa, Juba hiriburuko Terrain etxebizitza konple-

xuko erasoaren kasuan gertatu moduan: «Orduan egin zen presioaren ondorioz, soldadu batzuk epaileengana eraman zituzten. Prozesuak arrakasta izaten badu, inpunitateari mugak jartzea posible dela frogatuko litzateke».

Bestalde, erakunde humanitarioek beren neutraltasunari eutsi behar diote: «Laguntza humanitaria negoziatzeko txanpon moduan erabiltzen dituzten taldeak salatu behar ditugu, komunitateko pertsonarik hauskorrenak bahitu bihurtzen baititu. Beren helburu politikoa lortzeko laguntza humanitaria tresna bezala erabiltzen dutenen aurka borrokatu behar dugu».

Hirugarren proposamenak erakunde humanitarioek leku bakoitzean kontratatzen dituzten langileekin du zerikusia. Gero eta gatazka gehiagotan babesten omen dituzte langile horiek, batez ere oso arriskuak diren eremuetan. Nazio Batuetako arduradunek salatu dutenez, «bertako bazkideek oso segurtasun maila kaskarrari egin behar diote aurre eta nazioarteko langileek ez diete behar adina laguntzen».



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Oztopoak gainditzen

Europako beste lurraldeekin alderatuta, hemen, Euskal Herrian, gure seme-alabei gehiegizko babesa eskaintzen diegu; hau da, «badaezpada» hitza zutoihal bezala hartuta, gure seme-alabei bizitzea dagozkien gudak hartzen ditugu gure gain, beraien gorputzak balek zula ez ditzaten; halere, paradoxikoki, bala galduak izaten amaitzen dute batzuek. Gure seme-alabak sufritzen ikusteko beldurrez bizi gara gurasook, beraien helburuak autonomiaz lortzearen ezintasunak sortutako frustrazioa bizitzeko beldurrez. Orokorrean besteen sufri-mendua sentitu eta ikustea kosta egiten zaigu, baina, gure seme-alabena, are gehiago, eta gaizki pasatzen dugu.

Sufriarazi gaituzten esperientzieta-tik seme-alabak aldentzen saiatzen gara, ez gara konturatzen beraiek inguratzen dituen errealtatea ez dela guk bizi izandako errealtate bera. Hala, eta hemen dago koska, seme-alabak gurekiko pertsona bereiziak direla ahazten dugu, berezko ezaugarriekin. Argi dago ez dugula gure seme-alabek gorriak ikustea nahi, baina, hemen askotan esan dudana bezala, bizitzan momentu mingotsak ere badaude, eta, horiek ekiditeko bidea erraztu nahian esku hartzen dugunean, gure ondorengoen ikastaldi eta indartze emozionala oztopatzen ari gara konturatu gabe. Aldi berean, gure jarrerarekin, garapen pertsonalerako aukera bat ukatzeaz gain, beraien limiteak esploratzeko eta beraien gaitasunekin topo egiteko aukera ezeztatzen diegu seme-alabei.

Egunerokotasunean anitzak dira jokatibide honen adibideak; beste batzuen artean, esaterako, jolasten ari direla ez diegu zikintzen edo lurrera erortzen uzten, beti bost segundo aurreratzen gara hori gerta ez dadin, edo, otorduetan, bakarrik gustuko jakiak jartzen dizkiegu plateretan, edo, lagun batekin arazoren bat dutenean, argudioak entzun gabe beraiek egindakoa ontzat ematen dugu. Gehiegi babesten ditugunean, seme-alabek arduratsuak edo arduragabeak izatearen ondorioak

esploratzea saihesten dugu, eta, horrekin batera, beraien jarrera eta ekintzen inguruan hausnartzeko tokia eta aukera ukatzen diegu.

Bizitzan zehar arazoak agertuko zaizkie gure seme-alabei ere. Guztiok bizi izan ditugu eta biziko ditugu; alde batetik, kanpotik etorriko direnak, eta, bestetik, norberak aurrera eramandako ekintzek sortutakoak. Buruhauste-entzat erremedioak bilatzen ikastea bizitzarako ezinbestekoa den ikaskuntza da eta bakarrik une desatseginak bizitzen lortuko dute.

Horrek ez du esan nahi ez diegula gure seme-alaben arazoei inolako jaramonik egin behar, baizik eta suertatzen zaizkien arazoak lehenengo pertsonan bizitzen utzi behar diegula, konponbidea euren kabuz bilatzera animatuz. Segurtasun sentsazioa eskainiz, beraien arazoak entzunez, limiteak jarritz, erantzukizunaren garrantzian heziz, autonomia bultzatuz, autoestimua garatzen lagunduz, kon-

fiantza landuz eta beraien bizipenen bidaide izanez.

Harremanak galtzea, lanean hanka sartzeren bat egitea edo besteen epaia jasotzea bizitzan zehar arruntak diren egoerak dira eta horietatik eratorritako sentimenduak ez dira atseginak. Sentimendu horiek kudeatzen txikitatik ikas genezake, haurrak garenetik alegia, baina, horretarako, helduek utzi eta aukera eman beharko digute. Haurtzaroan, antsietate, tristura edo frustrazio sentimenduak ekiditen badizkiegu etengabe hurrei, gaizki pasa ez dezaten helburu, etorkizunean ez dira prest egongo heldu umo eta emozionalki arduratsuak izateko.

Utzi, eta aldi berean lagun diezaiegun seme-alabei konponbideak topatzen, beren kabuz gainditutako erronka eta oztopo bakoitza ahalduzterantz aurrerapauso bat izan dadin. •



Arazoak lehen pertsonan bizitzen utzi behar diegu seme-alabei.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

«Filipinetako azkenak», Katalunia eta gu

Yanis Varoufakis greziarrak Kataluniakoari buruzko denok ulertzeko moduko zenbait egia borobil esan ditu “The Huffington Post”-en. Besteak beste, hauxe: «Erreferenduma iaz egin izan balitz [Madrilek egiten utzi izan balu, alegia], unionistek irabazi egingo zuten... eta kito». Nik ez dakit iaz emaitza hori izango zen, baina inork ez du zalantzan jarriko duela bost, hamar, hoge, hogeita hamar urte egin izan balitz, independentziaren hautuak ez zuela garaile ateratzeko aukera txikienik ere izango. Adierazgarria da, neurri berean, 2010etik hona Madrilen inork ez dituela serioski planteatu erronka horri aurre egin eta bozketa adostu batean –«berme guztiekin» beraiek dioten gisa, bat-batean oso bermezaleak bilakatu baitira espainiarrak– irabazle izatearen epe luzeko etekin handiak. Londresko agintariak Eskozian irtenbide onena zela erabaki zutenean ere (2012ko Edinburgoko Akordioa) Madrilen ez zitzaien burutik pasa, ez PPko-ei jakina, ez eta PSOEko-ei ere (Moncloan ziren oraindik).

Eta zergatik hutsune hori? Harropuzkeria hutsa da ala beren indarrenganako konfiantza falta? Bietatik agian, baina lehen azalpena nabar-menagoa da. Madrilen nagusi den jarreraren adibide xume bat baino ez emateagatik, aurreko astean Erreferendumaren Legea *Parlament*-ak onartu zuenean eta JxS zein CUPeko legebiltzarkideek batera zutik abesteari ekin ziotenean, sesioa zuzenean emititzen ari zen TVEko aurkezleak hauxe esan zuen: «Ospatzeko, kantu bat ari dira abesten». Kantu bat? Bistan da esatariak ez zekiela “Els Segadors” zela –Kataluniako ereserki ofiziala alegia–, eta ez omen zitzaion axola ere, ordu erdi geroago adierazpide bera erabili baitzuen, ondoko inork datua helarazi ez ziolarik. Kazetaritza praktika okerra baino gehiago adierazten du anekdotak; bestea ulertzen saiatzeko borondate eza, mespretxu hutsa.

Ohiko joera historikoki hori izanik, orain sinestezintasuna, noraeza eta depresioa egunez egun handitzen doaz Estatuan, agertoki hau inoiz burutik pasa ere egin ez zaien amesgaizto ikaragarriena delako («1978tik honako irain eta mehatxu larriena», idatzi du Rajoyren Gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean aurkezturiko helegiteetako batean). Hanketako dardara gutziz ulerga-

rria da; “Los últimos de Filipinas” filma pantailaratu zuten iaz Espainia aldean, ustez epikoa, eta orain “Kataluniako azkenak” izatearen mamua hortxe dute, ez lurralde urrutiratu batean eta duela mende pasatxo, etxe atarian bertan eta oraintxe baizik. Eta ez da pelikula bat.

Erants diezaiozun horri ondokoak alde egin nahi izatearen sentsazioa berez oso desatsegina dela. Varoufakisek, berriro: «Nire emazteak nigandik banandu nahiko balu, lur jota nengoke, txikituta. Baina ez nuke pentsatuko hori ekiditeko eskubidea dudarik». Azken lau hamarkadotan etengabe saldu dizkiguten Trantsizio haren harribitxien artean bazen Dibortzioaren Legea garatu izana, baina handik 36 urte pasa direlarik oraindik ere herrien arteko dibortzio libreari betoa ezarri nahi dio Madrilek.

Hori bai, eguzkia beti ikusgai zuen inperio hartatik hazi, Francotik pasa eta Rajoy eta abarrengana heldu den harropuzkeriaz gain, beren indarrenganako konfiantza

Adierazgarria da zein erraz onartu duen Espainiak katalanak jada ezin dituela seduzitu, nola baztertu duen borroka horri aurre egiteko aukera. Eta, aldiz, ulertzeko zaila nola egin duen aurrera Euskal Herrian

faltaren azalpena ere kontuan izatekoa da. Badaki Espainiak ezin dituela katalanak seduzitu, eta horregatik baztertu du borroka horri aurre egiteko aukera bera ere. 1898an, historia liburuek diotenez, sekulako etsipena zabaldu bazen bertan, orain, Kataluniak alde egin ala gertzea erabaki, depresio hura errepikatzea espero daiteke.

Espainiak berak bere burua maite ez duen honetan, are deigarriagoa da Euskal Herrian azken boladan egin duen urratsa, agertzen duen legitimazio maila. EAJk PPekin lortutako akordioetatik harago doa errealtate hori; espainiar desmilitarizazioaren afera konponbide agendan oraindik sartu ez izana aipa liteke, edota, agerikoagoa, kaleetan espainiar selekzioaren eta Real Madrilen elastikoak gero eta maizago ikusten direla (zilegi dena, noski, baina baita bitxia ere). Espainia, Katalunia erakusle, betiko bera delako, bortitzagoa eta etsituagoa ez bada. •

SORMENAREN BARATZA

Gasteizko arte eszenikoak eta oro har kultura sustatzen duen gune burujabea

 **KULTURA** / Xabier Izaga Gonzalez

Ez da supermerkatua, plastikoz bildutako produktu bat ordaindu eta etxera eraman ohi den lekua, arte eszenikoak, arteak, oro har kultura partekatze gunea baizik. Artistek lanak prestatzeko eta publikoari prozesu horiek ezagutzeko aukera ematen dion lekua da Baratza. Sortze prozesuak bertatik bertara ikusi eta gozatzeko leku burujabea. Izan ere, bertako kideak «prozesuko jendea» dira, ikasketatik emaitzarainoko prozesua egin zaleak. Ortu horretan, behin lurra landuta, ideia landatu eta ureztatzen dute, eta, garatu ondoren, barazkia jasoko dute. Horregatik da Baratza.

Horregatik edo Lopez de Armentia neba-arreben ikastolako jolaslekuan bezala, lan egiteko moduaren oinarria umeen gisa jolastea delako; beharrezkotzat jotzen baitute sortze lana horrela egitea, beldurrik gabe, aurreiritzirik gabe, presiorik gabe. Unai eta Garazi Lopez de Armentia guztiz ezinezkoa ematen zuen baina pixknaka aurrera don proiektu artistiko honen sorzaileak dira.

ESKaintza zabala

Gasteizko Baratza aretoak kultura eta bereziki arte eszeniko garaikideak sustatzen ditu. Topagune burujabe honek 2013. urteko abenduan zabaldu zituen ateak, sorkuntza artistikoaren hainbat prozesu garatzeko asmoz. Bertan, esperientazio lanetan dihardutenek, lan berriei ekin nahi dieten artistek, itzalean dauden bertako adierazpen artistikoei lehentasuna dute; hausnarketa, eztabaida, prestakuntza, hedapena, lan egitaraua garatzeko lekua eta laguntza aurkituko dituzte Baratzan. Halaber, «bitartekari lana» egiten dute, arte diziplinak «Gasteiz hirira eta bertako hiritarrengana gerturatuz». Bestalde, bertako eta nazioarteko artisten arteko hartu-emanak eta elkarlana ezinbestekotzat dituzte.

Baratzak, beraz, antzerki, dantza eta bestelako diziplinetako obren antzezpena eskaintzen du, baina entsegurako aretoak alokatzen ditu, tailerrak ematen ditu,

Ortuan jarduten dute, edo umeen jolaslekuan, ideiak landatu, ureztatu eta gauzatzen, Gasteizen kultura garatu eta sustatzea helburu. Eskaintza zabala dute, eskuzabalak dira, eta lau urteko bide neketsuaren ondoren, argia ikusten hasi dira Baratzako sustatzaileak, pixkanaka baina sendo gora egiten ari baita egitasmoa.

eta edonorentzako solas edo eztabaidarako gune ere bada, edo artistekin hitz egiteko lekua.

Bi areto ditu, 100 metro koadro dituen Kuia, eta Kuiatxo, 50 metro koadrokoa, artistek behar dituzten baliabide teknikoak eskaintzen dituztenak. Ekitaldi bat antolatzeareto areto pribatu bat nahi duenak, zenbait ordutarako edo egun oso baterako aloka ditzake prezio onean.

Areto horiez gainera, Baratzako sarrera Atari izeneko gune garrantziatsua bihurtu da, eta jarduera asko egiten dituzte bertan. Gune horren arduradun Marina

Suarez Ortiz de Zaratek dioskunez, «jendeak bere jakin-mina imajinatzea eta konpartitzea» dute helburu. Ikuskizun eta kontzertuetarako agertoki txiki bat dago, mailegu eta kontsultarako liburu eta DVDak, lagun artean zerbait edateko barra bat, ikusentzunezko baliabideak... Asteko hiru arratsalde eta ostiral goizetan zabalik egoten da. Halaber, hilean behin Dena Nahi Dugu izeneko deialdia egiten dute, artisten ideiak eta obrak probatu eta erakusteko aukera ematen duena. Arte plastikoetan, ilustrazioan, argazkigintzan eta beste

Baratzako eta Parasite Kolektiboko kideen entsegua.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



diziplina batzuetan aritzen diren artistek beren lana bertan erakuts dezakete hilabetez, hartara, maiz joaten denak hilero leku berri batera doan sentsazioa izango du. Gune horretan izaten diren musika, antzerki edo dantza ikuskizunak, poesia emanaldiak, performanceak eta bestelako kultur agerpenak normalean formatu txikikoak izaten dira, sinpleak, eta gertuko giroan egiten dira. Sarreren dirua artistentzat izaten da beti.

ERRESIDENTZIAK

Arte eszenikoen sustapen horretan, konpromiso handiko programak dituzte, hala nola «erresidentziak». Deialdi baten bidez, zenbait taldek Baratzako espazioa erabiltzeko eta diru laguntza bat jasotzeko aukera dute. Urtean sei erresidentzia ematen ditu Baratzak; antzerki, dantza eta arte garaikideak lantzen dituzten taldeentzat dira erresidentziak, beren lanak gara ditzaten. Gehienetan hasi berri diren taldeei ematen dizkiete, baina ez beti. Espazioaz eta diru laguntzaz gain, laguntza teknikoa eta aholkuak ere ematen ditu Baratzak. Erresidentzien erdiak aretoko arduradunek zuzenean aukeratzen dituzte Gasteizko edo Euskal Herriko taldeen artean, eta beste erdiak deialdira aurkeztzen diren artean.

Orain hiru konpainia dituzte erresidente bezala. Antzerki arloko laguntzaz Unai Lopez de Armentia arduratzen da, koreografia eta oro har dantza arloan, berriz, haren arreba Garazi, eta batzuetan produkzio eta distribuzio lanetan ere laguntzen die Jemima Cano Baratzako produkzio lanen arduradunak. Beste laguntza mota bat erresidentzia teknikoa da: argia, soinua, muntaita... Unairen ardurapean.

Horrez gain, «Gasteiz txikia baita eta denok ezagutzen baitugu elkar», lagun asko hurbiltzen dira laguntza eske, esate baterako, areto bat erabiltzeko libre baldin badago. Kasu horietan aretoa garbi uztea izaten da eskatzen duten «ordain» bakarra. Izan ere, diru aldetik beharrak aseta baldin badituzte, lekua baldin badago... «gure helburua

Gasteizen kultura sustatu eta garatzea da».

HASIERA GOGOR ETA NEKETSUA

2013ko abenduan aretoko lanak ez zeuden bukatuta, baina Gasteizko Gobernuaren “Sormen laguntzak” programak praktika sortzaileak bultzatzen dituzten kultura gunee independenteei ematen dien diru laguntza jaso zuten, urte horretan zabaldu behar zuten lokala. Obrak hasi zirenean, arazoak izan zituzten, ezusteko handia izan zen meta-lezko azpiegitura bat jarri beharra. Eta lizentzia lortu bezain laster eta nahiko zorpetuta, ateak zabaldu zituzten. Baina «gutxienez jendea sartzeko eta jarduerak garatzeko» moduko lokala bazuten.

Arazoak arazo, gainera, lan asko aurreratuta zituzten ateak ireki zituztenerako, jarduera asko lotuta, programazioa martxan. Izan ere, obretako arazoak zirela-eta, beste lokal batzuk bilatzen hasi ziren, Artiumen, Udalean... Leku guztietan esaten zieten ezinezkoa zela, baina azkenean Oihanederren gela bat lortu zuten eta antzerki txiki bat egiteko moldatu zuten.

Unai Lopez de Armentiak hainbat urte eman zituen Euskal Herritik kanpo. Ingalaterran ikasi zuen interpretazioa, zuzendaritza, eta European XX. mendean izan den antzerki mugimenduaren transmisioa ere jaso zuen. Gaur bikotekide eta bere haurren ama duen Hannah Whelan irlandarrarekin eta beste zenbait lagunekin konpainia bat eratu eta European zehar ibili zen, baita zenbait hilabetez Brasilen ere. Bost urte eman zituzten konpainia hartan, eta, ondoren, Estatu frantsesera jo zuten Hannah eta berak. Ondoren, Hannah haurdun zegoela, Gasteizera etorri ziren; hala ere, Unaik denbora asko ematen zuen kanpoan, lanean.

Garai hartan, Unairen Arreba Garazi ere Bartzelonatik itzuli zen, dantzan ibilbide luzea egin ondoren. Eta hirurok, David Alcortarekin batera, Parasite Kolektiboa sortu zuten. Haien lehen obra “Hautsa” izenekoa izan zen, arrakasta handia lortu zuena.



Goian, Unai Lopez de Armentia, entsegu bat zuzentzen. Azpian, Garazi arrebarekin, lokaleko obrak ikusten.

Juanan RUIZ ARGAKZI PRESS

Leku baten bila hasi ziren, eta hainbat kultura eragilek salatzaren zuten egoerarekin egin zuten topo: kultura gunee independenteen gabezia. Lan egiteko eta lana partekatze leku bat behar zuten, «energiak elkarlanean garatzeko moduko leku bat». Baina azkenean asmo hori baztertu eta Unaik kanpoan lan egiten jarraitu zuen. Hala ere, Garazik leku baten bila jarraitu zuen tematuta, Gasteizen bizi nahi zuelako. Halako batean, 2012an, gaur egun Baratza den lokala ikusi zuen, eta bertan entseatzeko eta tailerrak ematen

hasi ziren. Baina ez zegoen bate-re argi nola biziko ziren konpainian lan eginez, eta are gutxiago nola ordainduko zuten lokalaren alokairua...

Urte hartako neguan Unai Ingalaterran zen, obra bat antzezten, eta gaixotu egin zen. Agertokian bertan konortea galdu zuen zenbait emanalditan. Obrako protagonista zen, eta, beraz, ezinbestekoa. Zuzendariak esaten zion ezin zutela obra bertan behera utzi. Kirol eta ikuskizun arloetako psikologo batengana eraman zuten, eta, luze hitz egin ondoren, esan

zion bere bizitza konpondu behar zuela: «Zu hemen zaude, baina zure burua ez, eta hori konpondu egin behar duzu, bestela horrela jarraituko duzu». Arrebari deitu eta bere ideia azaldu zion. European zehar gune alternatibo independente ugari ezagutu zituen, oso ondo funtzionatzen zutenak, eta argi zuen Gasteizen ere beharrezkoa zela horrelako leku bat. Leku ofizialak bazeuden ere, bertako artistentzako laguntzak, elkartzeko lekua eta beste programazio mota bat egiteko aukera beharrezkoak ziren. Eta eurek antzerkia egiten jarraitu nahi zuten.

Bideragarritasun planak egin eta gero, egun batean Unairen aitak esan zion berarekin hitz egin behar zuela, eta proiektuaren etorkizuna oso beltz ikusarazten saiatu zen; hala ere, bukatzean, diru kopuru bat eskaini zion, finantziarioa ikaragarri erraztu ziena. Garazik eta berak kooperatiba bat sortu eta horrela abiatu zuten proiektua. Ez zen erraza izan, ordea; Baionan “Hautsa” obra estreinatu zuten, enpresa sortu, Baratzarako obrak kontratatatu, beste hamaila lan egin... Gainera, Unai eta Hannah guraso izan berri ziren, eta, hala, hilabete gogor samarrak izan ziren guztiontzat.

LABORATEGIA, BIZKARREZURRA

Garazi eta Unai neba-arreben kontua da Baratza, beraz. Hala ere, Unaik behin baino gehiagotan esan du Jemina Cano gabe ez zirela honaino iritsiko. Kudeaketaz, produkzioaz, kontratazioaz arduratzen da, eta oso ona omen da bere lanean Baratzako «maitagarria». Unai Ingalaterran zela, haren arreba Garazik kultura kudeaketarako ikastaro bat egin zuen, eta bertan ezagutu zuen Jemima. Anaiari deitu eta beren proiektua aurrera ateratzeko Jemima behar zutela esan zion. Ikastaro hartako beste batzuek ere antzeko ideiak zituzten eta euren proiektuetara ko lan egitera joatea proposatu zioten, baina ezetz esan zien, eta Garaziri, berriz, baietz. Hasieratik egon da eurekin.

Diruarekin «malabarrak» egin behar izan dituzte, batez ere le-



hen bi urteetan. Laguntza bat zulo bat estaltzeko erabili eta beste zulo bat agertzen zen... Urte haietan, gainera, Garazi gaitoxotu egin zen, eta Unairi arreba gaztea zer abenturatan nahasi ote zuen zebilkion buruan. Baina gaur egun «nahiko lasai» omen dabilta.

Unai arlo teknikoaz eta programazioaz arduratzen da, baita aretoaren mantentze lanez ere; Garazi, kontabilitateaz; Jemima finantziazio arloaz eta kontratuez, eta Marina publizitate lanaz eta prentsarekiko harremanez. Atariko arduraduna ere bada.

Aurten Parasite Konpainia Baratzako jardueren antolaketan presentzia handiagoa izaten hasi da, eta, konpainiarekin batera, baita Hannah ere, konpainiaren zuzendaria baita. Besteak beste, «laborategian» parte hartzen du, beren sortzeko modua jendearekin konpartitzeko laborategia. Konpainia bezala, beren ideiak garatzen eta entseguak egiten jarraitzen dute, baina astean hiruzpalautan hamabost bat laguneko talde bat biltzen da hiru orduz. Unai dioenez, laborategi hori Baratzaren bizkarrezur modukoa izan da eta da. Konpainiak, halaber, esku har-

tze handiagoa du orain gainerako jardueretan, tailerretan...

BOST ZIKLO URTEAN

Aurreko urteetan hilero asteburu batean programazio berezi bat prestatzen zuten. Hartarako, agertokia eta oro har aretoa bera prestatu behar zuten. Joan den urtetik, ordea, horrelako ekitaldi gutxiago egin dituzte, eta erresidentzia eta tailer gehiago. Horrez gain, ia asteburu guztietan egoten dira inprobisazio dantza ikastaroak, astero afrikar dantza izaten da, baita dantza garaikide eta klasikoa ere, yoga...

Programazioa gutxituagatik, urtean zehar bost ziklo antolatzen dituzte. Lehenengoa, Zurrumbilo, euskarazko antzerki garaikideko lau eguneko jaialdia.

Ikastolako jolaslekuan bezala, lan egiteko moduaren oinarria umeen gisa jolastea da, beharrezkotzat jotzen baitute sortze lana horrela egitea, beldurrik gabe, presiorik gabe

Programazioa gutxitu duten arren, bost ziklo antolatzen dituzte urtean zehar: Zurrumbilo, Bertako Fest, Scratxe Gaua, Olentzerorentzako Zerrenda eta Dantza Zikloa

Atari gunean hilero artista baten erakusketa dago ikusgai. Eskuinean, Marina, Josune, Garazi, Patricia eta Hannah.
Juanan RUIZ| ARGAZKI PRESS



Hausnarketa baten ondorio da Zurrumbilo. Gasteizen, euskarazko antzerkiak irtenbiderik ez zuelakoan ziren, talde gutxi eginen zutela eta Baratzan ere euskarazko obrak eskaintzean publiko gutxiago izaten zutela ikusten zuten, eta jaialdi bat antolatzea erabaki zuten, jaialdietan energia gehiago pilatzen baita; publizitate gehiago izaten denez, jende gehiago agertzen da, eta gauza bereziak eskaintzeko aukera izaten da. Parasite Kolektiboa "Hautsa" lanarekin sartu zen euskarazko antzerkiaren sarean, eta, hura ezagututa, Unai ez du zailtasunik euskaraz antzerki lan oso onak egiten direla.

Bigarren zikloa Bertako Fest da. Gehienbat, erresidentziak izan dituzten lagunei beren lanak bukatzen dituztenean bertan erakusteko aukera ematen diete, baita Gasteizko konpainiei eta Baratzaren filosofiatik hurbil dagoen jendeari ere.

Irail amaieran, berriz, Scratxe Gaua antolatzen dute. Hori da hirugarren zikloa. Prozesuan dauden lanak baliatuta egiten duten jaialdia da, amaitu gabeko bost bat lan eskaintzen dituzte, «beharbada ideia arriskutsuak», aurkezteko beste lekuri ez duten lanak, lan txikiak, publikoa-

rekin partekatu nahi dituztenak, lan esperimentalak... Scratxe gauaren asteburuko igandean, iraupen luzeagoko obra bat ere antzeztzen du, sari gisa, erresidentzia izan duen taldeetako batek. Obra hori ere bukatugabea izan daiteke. Izan ere, Baratzako kideek uste dute antzokietan erakusten diren produktu gehienak oso itxiak direla eta publikoarentzat supermerkatuarekin joatearen antzekoa dela obra ikustea, kontsumo arrunta, eta jendea antzerki garaikidera hurbiltzeko modu bat gauzak prozesuan daudela erakustea dela. Scratxe Gauak Baratz zabaldu baino askoz lehenago hasi ziren, Factoria de Fuegos elkartearekin, Amari-ka aretoan. Aurtengo Scratxe Gaua hamaikagarrena izango da.

Laugarren zikloa abenduan egiten dute: Olentzerorentzako Zerrenda. Alegia, «zer etortzea gustatuko litzaizuke?» galderari erantzun, eta, urteurrena ospatzerekin batera, Baratzaren promozioa egiten dute.

Azkenik, Dantza Zikloa ere egiten dute.

GORANTZ DOAN PROIEKTUA

Gasteizen artista asko dagoela dio Unai. Eurek hala uste zuten, eta ikusi dute ez zeudela

oker. Gasteizko artistek asko su-
fritu dutela dio, batez ere kri-
sialdia hasi zenetik, diru lagun-
tzen mozketa «ikaragarria»
izan baitzen. Bera Gasteizera
itzuli zenean, sekulako talentua
sumatu zuen hirian, baina baita
ezinezkoa zela lan artistikotik
bizitzea, are jardun horretan ja-
rraitzea ere. Jende asko dago
antzerki amateurrean zein pro-
fesionalean, dantzan eta dizipli-
na guztietan. Eta Baratza
proiektua aurrera doa, zalan-
tzarik gabe, pixkanaka, Unairen
hitzetan, baina berak ere argi
du «gora» doala: askoz publiko
gehiago dute, arlo ekonomiko-
an ere, estutasunak atzean uz-
ten doaz.

Baratzara doan publikoa, ger-
tutasun horren ondorioz beste-
ak beste, aretoaren «adiskide»
bihurtzen da. Publikoa bertara-
tzea eta mantentzea neketsua
dela dio Unai, baina azkenean
ohiko bihurtzen dela. Hasiera-
ko garaia dakar gogora, sekula-
ko lana egin ondoren lagun ba-
kan batzuk baino agertzen ez
zirenean. Orain, ordean, ez da
halakorik gertatzen, orain ho-
geita hamarretik gora, eta ba-
tzueta 80 ere bildu izan dira,
lekua oso handia ez den arren.
Lekuaren txikitasuna desaban-
taila izan liteke, baina baita au-
kera ere, publikoarekiko harre-
man intimoagoa lortzeko,
gertutasun giroa.

**Deialdi baten bidez, antzerki, dantza eta arte
garaikideak lantzen dituzten taldeek
Baratzako espazioa erabiltzeko eta diru
laguntza bat jasotzeko aukera dute**

**Baratza proiektua aurrera doa zalantzarik gabe.
Pixkanaka baina aurrera: askoz publiko
gehiago dute, eta, arlo ekonomikoan ere,
estutasunak atzean uzten doaz**

Baratzako arduradunak, eta ez
Unai eta Garazi bakarrik, antzer-
ki konpainia batean edo bitan
ere jarduten dute. Kudeatzaile
ez ezik, aktore ere badira, edo
zuzendari... Hau da, antzerki
jendea, zeharo. GAUR8k bisitatu
dituenean, entsegu betean dau-
de, eta datorren irailerako pres-
tatzen ari diren “Jokoa” obraren
zati bat ikusteko aukera izan du.
Bertan, Unairen zuzendaritza-
pean, Unairen neska-lagun Han-
nah, Josune, Patricia, Unairen
arriba Garazi eta Marinak parte
hartzen dute. Unai, noizbehin-
ka beste konpainiaren batekin
lan egiten du.

Argia ikusi dute. Lopez de Ar-
mentia neba-arrebek Gasteizen
bizitzea lortu dute, Gasteizen
soldata bat jasotzea, baita beste
zenbait lagunekin batera amets
bat gauzatzea ere; egunez egun,
izerdiz baina gogoz, ilusioz, jen-
dearekin euren lana partekatuz.

2013ko abenduan
inauguratu zuten Baratza
aretoa.
Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



Iñaki Landak kulturagune alternatiboen mapa egin du. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

GASTEIZKO KULTURAREN JAGOLE ALTERNATIBOAK

Baratzaren proiektua abiaraztea ekarri zuen kezka ez da Lopez de Armentia neba-arrebena edo gune horretako kideena soilik. GAUR8ko orrialdeotan agertu diren Gasteizko hainbat sortzaile eta kultur eragilek aipatu izan dituzte bai hiriko kultur aberastasuna bai abian jarritako proiektuen bideragarritasun zaila. Behin eta berriz errepikatzen den leloa da; egia latza, alegia. Oraindik orain, EHUko Arte Ederretako irakasle Natxo Rodriguezek gure orrialdeotan hauxe zioen: «Guztioi interesatzen zaigu eremu kultural aberats eta bizia. Baina erakundeek ez dute ezer egiten, beti dago plan estrategikoren bat, bata bestearen atzean, baina eragile independenteak ez dira zaintzen. Nekagarria da, horrek jendea desaktibatu besterik ez du egiten».

Uste berekoa da Unai Lopez de Armentia. Dioenez, Gasteizko Udalak ez du berak ezinbestekotzat jotzen duen kultur plangintzarik, eta udalbatza aldaketa den aldiro, aurreko udal taldeak abiatutako proiektuak ahaztu egiten dira. Honako hauxe esan zion Amalur Artolari duela bi urte: «Gasteiz kultura mailan oso gaizki dago. Eta, hein handi batean, etorkizunera begirako kultura planik egiten ez delako da. Alkate berria sartzen den aldiro gauza berriak egiten dira lehen zeudenak mantendu gabe, eta azkenean geratzen den bakarra unean atera duten argazkia da». Hori «oso gogorra» eta nekagarria iruditzen zitzaion: «Aurten ez dago aurrekontu berririk kulturarako, prorrogatu egin dute, eta, gainera, aspalditik dauden elkarte askori laguntzak ikaragarri murriztu dizkiete... Gauza asko ari dira desagertzen eta hori oso gogorra da».

Zorionez, instituzioen zabarkeriagatik kulturak bizi duen egoera negargarria ikusita, Baratza bezalako beste hamaika gune sortu dira. Iñaki Landa kazetariak Gindi Auzmendiren eta Mikel Saenz de Buruagaren laguntzaz egin zuen mapak 80 bildu zituen, hainbat tamainatakoak, tabernetatik musika aretoetara, arte gela soiletatik Errekaleor Bizirik gisako ekimenetara, tartean Hala Bedi Irratia edo Gaztetxea. Hiriko kultura eta sortzaileak benetan sustatzen dituzten guneak dira.





Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

LEGE LEGALAK ETA ILEGALAK, DEMOKRAZIA ETA SOFISMA

Kataluniako Parlamentuak lege bat egin berri du. Ez da gauza arraroa, horixe baita parlamentuen egitekoa. Kataluniako Parlamentuak, baina, lege ilegal bat egin duela esan dute Gobernu espainiarrak eta hark izendatutako epaileek. Kataluniarrek hautatutako Parlamentuak egin duen legea demokraziaren aurkako eraso

omen da, legea -lege legala, alegia- hausten baitu. Legeak -lege legalak, alegia- demokrazia bermatzen omen du; beraz, lege hori haustea demokraziaren aurka egitea da, frankismoaren legeekin hain gustura bizi zirenek diotenez. Izan ere, frankismoak ere bazituen legeak, lege legalak, alegia. Eta lege legala betearazteko zeregina duten epaileek hura hausten duten gobernariak, alkateak, funtzionarioak, boluntarioak eta bozkatu nahi duten dozenaka mila herritarrak jazarri beste erremediorik ez dute, demokrazia bermatzeko. Filosofoek sofisma esaten diote. Edozein amaren seme-alabok, berriz, suabe esatearren, txatxukeria. Xabier Izaga Gonzalez



EXPRAI

iRRITZIA:



UDAZKENA
BESTE UDABERRI BAT DA,
NON HOSTO BAKOITZA
LORE BAT DEN
(ALBERT CAMUS)

ZIENTZIARAKO ZIRRARA PIZTEN

Probak egin eta ikasteko
esperimentu errazek
liburu forma hartu dute

 **ZIENTZIA** / Nerea Goti

Inguruan gertatzen dena ikertzeko sena piztea du helburuetako bat, baina beste asko ere baditu: intuizioa bultzatzea, pentsaraztea, akatsak onartu eta horietatik ikasaraztea... Arlo horiek guztiak jorratzen dira Elhuyarrek argitaratutako «Ume jakinguratsuen esperimentu-liburua» lanean. Erreza, entretenigarria, praktikoa...

Hori gertatzen da horrela delako, eta kito» esaldi ezaguna ahotik ezabatzen duen liburua argitaratu berri du Elhuyarrek. “Ume jakinguratsuen esperimentu-liburua” da, 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago eta ehun sormenezko ariketa praktiko baino gehiago proposatzen ditu. Zientziarako zirrara piztea lortu ala ez, umeek duten jakin-minatik tira egiten du argitalpenak du-darik gabe, eta aukera ugari ematen ditu etxeko saltsero txikiak ikertzen jartzeko, haurrek eurek irakaspenak ateratzeko.

Lehen kolpean, helduen arreta pizten duten hainbat osagai dituz proposamenak: sormena lantzen du, esperimentu ariketak biltzen ditu, liburu praktiko, dibertigarri eta hezigarria da... Horrelako proposamenetan, baina, maiz gertatzen da liburua esku artean hartu eta esperimentua egiteko orduan zailtasunak agertzen direla: beharrezko material edota tresnak falta ditugu etxean, ez baitira erraz eskuratzeak. Akabo, beraz, une magikoa, beste momentu baterako utzi behar dena.

Zailtasunek ikertzeko grina itzal dezakete askotan. Bada, ez da inolaz ere liburu honen kasua. Egileek nabarmentzen dutenez, esperimentuak oso erraz egitekoak dira, eta horren proba

da planteatzen diren erronkak gauzatzeko behar diren elementu eta materialak etxe guztietan izaten direla: ura, azukrea, gatz, esnea, legamia, lurra, izotza, plastikozko ontziak...

Erraztasun horiek emanda, denbora pasatzeko esperimentu liburu huts bat baino askoz gehiago da publikazioa. Elhuyar argitaletxeak nabarmentzen duenez, balio zehatz batzuk lantzerantz bideratuta dago lana, eta ikerkuntzarako grina piztea da helburuetako bat. Liburura Asia

Ume bat, xaboi eta urarekin burbuilak egiten. Asia CITRO

Citroren irudi eta testuen itzulpena da, eta helburu nagusi bat bilatzen du: haurrak pentsaera zientifikoa izan dezaten gida-tzea ariketen bidez, hau da, «intuizioa eta gauzak ikertzeko eta aurkitzeko sena piztea».

Lurdes Ansa Elhuyarreko Argitalpen arduraduna da. GAUR8ri azaldu dionez, umeen pentsaera zientifikoa aztertzen dugunean, haurren lekuan jartzen saiatu behar dugu. Bada, gakoa umeek hain gustuko duten “zergatik” galderan dago. «Haurren pentsaera zientifikoaz hitz egiten dugunean gauzak zerbaitengatik gertatzen direla esaten ari gara; ikasten dutela ekintza bakoitzak baduela bere ondorioa eta ondorio bakoitzak baduela bere arrazoia. Umeari horren inguruan pentsarazi egiten dio liburuak», nabarmendu du Ansa.

UMEAK EGIN DEZALA BIDEA

Gauza sinpleak, egunerokoan ikus ditzakegunak dira ariketen bidez proposatzen direnak. Elhuyarreko arduradunak nabarmendu duenez, «helduok joera dugu esateko ‘gertatzen da, horrela gertatzen delako’», eta horrek umearen jakin-mina apurtzen du. «Ez diogu jarraitzen



Lehen irudian, haur bat eskulan bat egiten. Bigarrenean, beste haur bat egindako esperimentuari adi-adi begira, ondorioen zain. Asia CITRO



uzten, baina orain badaukagu aukera horretan eragiteko, laguntzeko eta hori zergatik den erantzuteko, azalpen horiek jasota daudelako liburuan», argitu du.

Hori bai, helburua ez da liburuak proposatzen dituen ariketen bidez helduak haurra bideratzea. Ideia da umeari bide hori egiten erakustea. Planteamendua honakoa da: «zuk egin, zuk ikusi, zuk probatu, zuk atera zure ondorioak eta nahi baduzu horren gainean hitz egingo duzu». Argi aipatzen dute «kontuz, ez egin hori, gaizki aterako zaiuzu-eta» esaldi famatuak ez duela asmoarekin bat egiten. Kontrako norabidea proposatzen dute: «ez utzi, aurrera egin, probatu zer gertatzen den, zuk zeuk ikusiko duzu, eta ikasiko duzu».

HUTSEGITEEN KUDEAKETA

Baina, zer-nolako esperimentuez ari gara? Bizitza errealeko ohiko jardueretan oinarrituta, liburuan umeak dira «protagonista nagusi eta bakarrak». Ho-

rregatik diseinu grafikoa be-
raientzako pentsatuta dago, era-
kargarri izateko, eta azalpenak
ere haurren adinera egokitu di-
tuzte. Horrez gain, «genero ber-
dintasuna» oso kontuan izan
duen lana da.

Gai ezberdinak hartuta zortzi kapitulutan banatuta dago liburu-
a. Begirada azkar batean, etxe-
etan maiz ikusten diren gozo-
kiekin lotutako ariketa bat aurki
daiteke. Gomazko zizareak edo
hartzak erakusten ditu irudiak
eta horiek «luzatzen eta txikia-
gotzen» probatzea proposatzen
da, ura, ospina, azukrea, zukua
edo soda erabiliz. «Egin proba
gomazko hartzak edo zizareak
osagai lehorretan bilduz eta na-
haste desberdinetan bustiz»
planteatzen du liburuak, baita
galdera bat bota ere: «Zure us-
tez, gomazko hartz edo zizareek
gauza bera egingo al zuketen li-
kidoen tenperatura aldatuz ge-
ro? Egin proba, eta ikusi zer ger-
tatzen den».

Lurdes Ansa Elhuyarreko ar-
duradunak zehaztu duenez, oso

gauza sinpleak egin daitezke,
eta horren adibide gisa landare-
en ureztatzean oinarritutako
ariketa bat aipatu du. Pote ez-
berdinetan landare bat landatu-
ta, ontzi bakoitza ur kantitate ja-
kin batekin ureztatzea da
proposamena, kasu bakoitzean
izango den emaitza ikusteko.

Hautatutako ariketen eginga-
rritasuna ikusarazteko, beste
adibide bat jarri du Ansa. Lega-
mia hartu eta tenperatura ez-
berdinetan dagoen urarekin na-
hastea da kontua, edota gatza
botatzea. Ondoren, zer gerta-

tzen den behatu behar du hau-
rrak. Horren inguruko azalpen
guztiak aurkituko ditu helduak,
gertatutako prozesua bera ere,
era sinplean gertatutakoa azal-
tzeko moduan. Izan ere, zenbait
azalpen haurrarekin arituko
den helduari zuzenduta daude.
Horrekin batera, zehazten du
zer behar den, jarraitu beharre-
ko urratsak, korapilatsuak izan
daitezkeenak...

Horrez gain, bada lantzen den
beste kontu bat, akatsak onartu
eta horietatik ikastearena. Huts
egitea nola kudeatu behar den
galdetuta Ansa azaldu zuenez,
«zientzian egunerokoa da aka-
tsetatik ikastea», eta bide hori
erakutsi behar zaie umei, huts
egitea normala dela eta horrek
ere pentsarazi egiten duela: zerk
egin du huts, zer egin behar da
hurrengoan emaitza bera ez iza-
teko... «Zientziaren oinarrietako
bat da probatzea, akats bat izan
bada zergatik gertatu den ikusi
eta aurrera egitea», amaitu du
Ansa, haur zein helduentzat
mezu baliagarria helaraziz.

Elhuyarretik aipatzen dutenez, askotan umeen jakin-mina mozten da. «Hori gertatzen da horrela delako eta kito». Liburuak egoera horri esperimentu errazekin eman nahi dio buelta

Helduen inplikazioa bilatzen du argitalpenak. Hori bai, ariketak oso esperimentu sinpleak dira eta umei zuzenduta daude. Inoren laguntzarik gabe egiteko modukoak ere badira



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Iraila

Zenbat aldiz hasten gara hutsetik? Zenbat irailetan zirriborratu ditugu koaderno berriak gure boligrafo erosi berrieekin? Ohartzerako busti gaitu irailak eta Tolosa Hiribideko errepide distiratsuaren ertzeko geltokietan oka egiten dute autobusek bost minutuero.

Semaforo baten konpas gupidagabeari amore eman dio gure udako abenturazale senak eta urduri gurutzatzen ditugu zebraideak berokipean gordeta. Auto-ilaretan irratiaeren bolumena goratzen dugu ahots ezagunen batek auto honetatik, ilara amaiezin honetatik, hiri honetatik, mundu honetatik urrun eramango gaituelakoan. Baina udazkenean berriz ere hitzez betetako esatariak auto-ilarak dauzka ahoan; Ipar Korea, Estatu Batuak, Katalunia, sexu-erasoak, euria, politikarien promesak eta euria; iraileko euria euria euria eta alertak; eta Atlantikoa gurutzatzen duten urakanak eta lurra zartatzen duten lurrikarak. Eta zu zure iraultzaile senaz akordatu zara zure auto zahartzen hasiaren bolanteari helduta; Karibeko uharte guztiak ezagutu nahi izan zenituen garai hartaz; Kubaz eta Mexikoz, eta postaletan ikusitako Habanako malekoia lainoak eta urak irentsia irudikatu du zure irudimen nekatuak.

Zure garuneko etorbide kolapsatuetan ekaineko egun urrun haiek dabilta atzera-aurrera: nola agindu zenion zure buruari sekula ez zintuela berririo bizitzak nahi ez zenukeen leku batera eramango; zure burua jarriko zenue-

la erdigunean, zure zilborrari gehiago begiratuko zeniola eta ezker-eskuin dabilta aurreko haizetako garbigailuak. Autoko metal hotzaren kontra lehertzen diren euri tantek atera zaituzte zure kabutatik eta zurea bezalako dozenaka begirada galdu ikusi dituzu nor bere autoko bolanteari amorruez helduta autora jausten zaizkien euri tantei begira, isilik, aurreko autoa noiz mugituko zain baina lanera joateko gogorik gabe.

Eta autoko kristal bustian apurtu eta bideak zabaltzen dituzten tantei begira pentsatzen hasi zara: zure baitan errepasatu dituzu zure burua berriz asmatutako aldiak, hutsetik abiatutako irailak. Zenbat “zu” asmatu dituzun urte gutxian. Eta, aldi berean, “zu” guztiek nolako antza hartu duten ekaina iristerako.

Urakan denboraldian hasten da ikasturtea hemen. Dena neurtzen baitugu denboraldika, dena kurtsoka. Telebistan ikusi dituzu palmera erauziak eta uholdeek irentsitako autoak eta haizeak paperaren moduan okertutako hormak.

Zure buruari galdetu diozu Estatu Batuetara iristen den arte existitzen ote den urakanik. Eta kurioa egin zaizu errutinara itzuli zaren egunetan mundua hankaz gora ikustea; barruak irauli dizkizu pantailaren bestaldeko kaosak. Eta berehala Mexikora joan dira albistegiak: lurrikarak zulatutako errepideak agertu dira, espaloietan eseritako jendea eta gaur hamasei urtetako irailaren hamaika hartaz akordatu zara; ikastolatik etxera bazkaltzera joan eta albistegietan nola ikusi zenuen kea dorre batetik irteten, eta bat-batean hegazkin batek nola jo zuen aldameneko etxe orratza, eta sabela eta eztarria korapilo batek lotuta nola itsatsi zenizkion begiak telebistari eta ama nola sartu zen egongelara ikastolara itzuli behar zenuela esanaz. Eta absurdoa iruditu zitzaizun erlojua, absurdoa motxila bete beharra, absurdoa ikastola bera mundua ulertzeko zure klabeak kolokan jarri ziren une hartan.

Eta orain auto bateko bolanteari helduta zaude, ilara batean preso, begiak autoko erlojuari itsatsita, bost minutuko atzerapenak sabela eta eztarria korapilatuta. Eta urakanak eta lurrikarak irudikatu dituzu zure ziurtasunak, zure ordutegiak eta zure egutegiak errotik erauzten, baina ohituegia zaude irail euritsu hauetara, zure burua berrasmatu duzunaren itxura eginez iazko antzerki bera egitera. Errazagoa baita hutsetik baino hutsetatik hastea. •



Ohartzerako busti gaitu irailak.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Nerea Ibarzabal**

Pisua

Gerra bakoitzaren ostean, norbaitek garbiketa egin behar du. Ordena ez da bakarrik egingo. (...) Norbaitek zutabe bat mugitu behar du arrastaka hormari eusteko, norbaitek kristalak jarri behar dizkie leihoei eta ateak jarri gontzetan. Ez da lan fotogenikoa, eta urteak hartuko ditu. Kamerak beste gerra batzuetara joan dira. (...) Historiaren trama dakitenek apenas ezagutzen duten horien esku utzi behar dute. Eta apenas baino gutxiago ezagutzen dutenen esku, eta ezer ez dakitenen esku ere bai». Hala zioen Wisława Szymborskak «Amaiera eta hasiera» izeneko bere poeman, eta hitzak sumatu ditut behatza nigana zuzentzen, argi identifika dezadan nire burua gerraren historia «apenas ezagutzen duten» horien artean, Gerra Zibilarena behintzat.

Dena jasota zegoen gu iristerako. Ez leihorik hautsita, ez eraikinik haustuta. Etxeko dramak hain ondo esalita, non aiton-amonek azaletik kontatzen zituzten istorio beltz horietan inoiz ez zegoen argi nori gertatu zitzaion zer, edo guri, edo ondoko baserrikoei, edo besterik gabe, norbaiti entzundako urruneko kontuak ziren denak. Ze gure kasuan birraiton-amonek eraman zuten historiaren trama, eta denbora hori da, norbere bizitzako dramarik gogorrenak norbere birbiloben Historiako liburuko gai batean kabitzea.

Iruditzen zait urteak behar izan ditudala kalkulatzeko eskutik eskura igaro eta gure atzamarretara iritsi den historiaren pisua. Ikastolatik Gernikara egindako irteerek, kanturen batek eta pelikuletako erreferentziek eraikitako gerraren irudi difuminatu bat soinean hartuta egin dut nire ibilbide laburra, esaten ari zaizkiona garrantzitsua dela sumatu arren, ezer gutxi ulertzen duen haurrak bezala. Eta badakit naturala horixe dela, eta gure seme-alabek are gutxiago ulertuko dutela aurki mende bat pisatuko duen min hori. Egia esan, ez nioke kontra egingo denboraren ondorio berezkoari, ez ninduke hainbeste beldurtuko ahanzturak, gerra benetan 1939an amaitu zela pentsatuko banu.

Baina esnatzen naiz eta berriro ikusten dut Guardia Zibila inprentetan, eta eskulturetan pintaketa faxistak, oraindik leize eta bide bazterretan gehiagorentzako lekua dagoela esanez

ko lekua dagoela esanez. Eta batzuk iragana ahazteko interes bereziarekin, eta sententziak, eta “*putos rojos*” sare sozial modernoetako iruzkinetan, eta euskaldunak kartzelan beti. Orduan konturatzen naiz ezin dugula lasai ahaztu, gure familietako isiltasunak baino gehiago beldurtzen nauelako gerra hartako garaileen ondorengo diren epaile eta alderdienak, isiltasun adostu hori, lehen gerra eta orain beraien neurriko bakea diseinatzeko hain beharrezkoa dena.

Joan den astean omenaldia egin zitzairen Markina-Xemeinen 1936. urtean udal kudeaketan aritzeagatik errepresaliatutako herritarrei. Kartzelan hil ziren batzuk, fusilatu egin zituzten besteak, eta batek bere buruaz beste egitea erabaki zuen kartzelatik irten ostean. Duela gutxira arte ezagutzen ez nituen istorioak eta izen-abizenak, barrutik astindu nindutenak betirako. Ni hor, nire gerraren irudi eramangarriarekin inoiz ezer gertatzen ez den gure herri txikian, eta bat-batean

Baina esnatzen naiz eta berriro ikusten dut Guardia Zibila inprentetan, eta eskulturetan pintaketa faxistak, oraindik leize eta bide bazterretan gehiagorentzako lekua dagoela esanez

senideak, loreak, txaloak, herritarrak elkartuta eta ordura arte inoiz ikusi ez nuen zauri zahar eta handi bat bistan, denok.

Zintzurretarraino iritsi zitzaidan mina, zazpi gizon hauena, eta batez ere omendu gabe dauden guztiena, bortxatutako eta umiliatutako emakumeena, suntsitutako etxe eta familiena. Kaleak berreraikita baina historiako kapituluak itxi gabe jaso ditugu ondorengook, eta uste dut hor badugula ardura bat, demokraziaz mozorrotutako instituzioetatik inoiz etorriko ez diren aitorpenak egitekoa.

Hala behar du, noizbait historia lasai utzi nahi badugu ezer ez dakien ondorengoaren eskutan, Szymborskak zioen bezala: «Kausen eta efektuen gainean hazi den belarretan etzan behar du norbaitek, galburu bat hortzetan, lainoei begiratzeko». •

«Bertsolaritzaren azken iraultza kultura eta jendarte garaikidearekin konektatzean gertatu da»

Pozik dago Jon Maia, “Berriak jaio ginen” liburuak harrera oso ona izan duelako. Gauza asko kontatzen ditu, bere ahots propio eta berezi horrekin. Euskaraz pentsatu aurretik oholza batera bertsotan egitera ausartu zen mutikoaren pausoak kontatzen ditu; asko sufritzen bazuen ere, bertsolari izan nahi zuen gaztetxoaren minak kontatzen ditu. Eta, parean, bertsolaritzak azken hiru markadetan zabaldutako bideez hitz egiten du; landa eremuko bide estuetatik BECera milaka bertsozale eramaten dituen autobide zabaleraino.

Beti zabilta mila saltsatan. Liburua irakurrita, sentipena da ausarta zarela, beti ematen duzula pausoa aurrera erronka berri baten parean.

Ausarta, inkontzientea, ez oso kalkulatzaileria... ezaugarri horien koktelak denetarik egitera eramana nau. Egia da, era berean, nahiago dudala egindakoaz damutu ez egindakoaz baino. Espiritu horrek eraman nau, zorionez, beste jarrera batekin ezagutuko ez nituen eremuetera. Espiritu horrek bertsolari izatera eramana nau lehenik eta behin. Eraman nau abeslari izatera, liburuak idaztera, kantuak idaztera, Ternuara espedizio batean 2.000 kilometro arraunean eginez, momentu politiko oso bereziak bizitzera, herri honentzat oso intentsoak izan diren egoerak bizitzera, miresten dudana jende askoren ondora, miresten dudana jende askorekin lan egitera, pelikulak zuzentzera... Oso pozik nago zentzu horretan. Beti izan dut bizitza aprobetxatu egin behar den estutasun puntu bat. Ahal dudana bitartean ahal ditudan gauza gehien egiteko aprobetxatu nahi dut.

Miresten duzun jendea aipatu duzu. Liburuan diozunez Maialen Lujanbioren idoloa zinen. [Barreak] Gu umeak ginenean Eskolarteko Txapelketak oso garrantzitsuak ziren. Pentsa, orduan ez zegoen “Hitzetik Hor-

JON MAIA SORIA BERTSOLARIA, SORTZAILEA

Txapelketa Nagusiaren atarian, «Berriak jaio ginen» liburuak mahai gainean jarrita aritu gara Jon Maiarekin hizketan. Kronika oso pertsonala da, bere bidea eta bertsolaritzarena parean jasotzen dituen.

Behinola bertsolari izatea erabaki zuen; arrotz sentitzen zituen plazetan, arraro begiratzen zioten entzuleen parean eta saioaren aurretik bizpahiru aldiz botaka eginez. 97an Euskal Herriko finalera iritsi zen eta bertsolari sentitu zen lehenengoz.

amagoia.mujika@gaur8.info

tzera” ere. Nik, adibidez, ez nuen sekula bertso saio bat entzun lehenengoz oholtzara bertsotan egitera igo nintzenean. Bertsolari profil berria eta bitxi samarra ginen. Egoera horretan Karmelo Landan, txapelketa bateko finaleraino, 4.000 haurren aurrean kantatzea gauza handia zen. Niretzat nire aurrekoak idoloak ziren; Sarasua, Euzkitze... eta gure atzetik zetozenek ere gugan jartzen zuten arreta. Maialenen kontu hori nahita jarri dut liburuan, grazia handia egiten digulako. Batzuetan oraindik berak adarra jotzen dit eta garai hartan nik botatako agurren bat kantatzen dit, memoriaz dakien oraindik, urte asko eta gero.

«Extremaduratik eta Zamoratik ‘kasualki’ etorritako nire gurasoek ‘kasualki’ hartutako erabaki horien ondoren ni ‘kasualki’ lur honetan jaiotzeak eta bere hizkuntza ikasteak gure herriaren historia guztia eman dit herentzian». Liburua irakurrita sentitzen da sekulako karga eramanez duzula gainean urte askoan.

Orain ez dut gogoratzen inolako traumarik, baina izan ditut oso gaizki pasa ditudan momentuak. Nirekin eramanez izan dudana itzal bat izan da, zerbaitegatik ezkutatzen bainuen nire familiaren jatorria. Nik ez nuen ikusten inor nire antzekorik. Ez nuen ezagutzen inor nire egoeran bertso giroan. Niretzat, giro horretan eta beste bertsolarien aurrean, aitarekin eta amarekin gazteleraz hitz egitea sakrilegio bat bezala zen. Erabat euskalduna zen giro hartan orban bat uztea nire erruagatik.

Horrez gain, euskal gatazka-ren testuinguruan oso sartua bizi izan naiz umetatik; familian, etxean, herrian.... Espainia etsaia zen, arerioa, mina egiten ziguna. Nire familia Espainiako herri batzuetatik etorria zen, hori zen nire jatorria, eta nik ez nekien nola kudeatu hori ume-tan. Karga bat eramanez, bizi

nuena ez zelako egoera ohiko bat. Zorionez gaur egun erdal-dun jatorriko gurasoak dituzten bertsolariak edota erdal eremu-etuak asko dira eta ez dut uste nik liburuan kontatzen dudana bizi dutenik.

Euskara ez zenuen etxean jaso, baino zure bizitzan bidaide dituzun balore indartsuak bai.

Nik euskara eta euskal kontzientzia batera sentitu izan ditut. Nire aita gau eskolara joaten zen euskara ikastera, ni jaio orduko hitz egin ahal izateko. Liburuan esaten dudanez, ni jaio nintzen-erako dena erabakita zegoen, ni bando batera jaio nintzen, ideologia batera. Ideologia horren baloreak nigan egon dira umetatik, onerako edo txarrerako. Ez dut nik erabaki horrela-koa izatea, bando horretakoa izatea, ni hor jaio naiz.

Nik nire gurasoei aitortza hori zor diet, denbora askoan ezkutatuta egin izan ditudalak. Nolabait tapatu egiten nuen identitate hori, konturatu nintzen arte ez neukala zertan lotsatu eta harro senti nintekeela, haiei zor diedalakoa nire euskalduntasuna –ikastolara eramanez erabaki zuten–, nire hizkuntza eta nireak diren hainbeste balore.

Eta emigrante jatorraren apologia egitera pasatu zinen. Ezkutatzen zenuen errealtate hori indargune bihurtu zaizu.

Bai, batzuetan pentsatzen dut ja liberatu egin beharko nintzakeela. Ja esan dut, urte batzuk daramatzat hori lantzen eta agian garaia da horretatik askatzekoa. Gertatzen dena da Euskal Herriak bizi duen momentuan, diskurtso hori interesgarria izan daitekeela uste dudala. Paradigma berriak bilatu behar ditugu etorkizun berri bat eraiki ahal izateko. Pentsamenduaren oinarri berriak, formulazio berriak behar ditugu eta euskalduntasuna eta identitatea bera ulertzeko modu berriak behar ditugu ezinbestean. Horrek animatzen nau

diskurtso horrekin segitzera, hortik etor baitaiteke euskal identitatearen hedapen bat eta Euskal Herriaren burujabetzaren bidearen hedapen bat, jatorri anitzeko jende horrengan. Uste dut beharrezkoa dela iraganaren irakurketa hori ondo egitea, ez baita ondo egin.


Unai Iturriagaren ilustrazioak biltzen ditu liburuak. Oso ariketa sana eta inteligentea da norbere buruaz barre egitea, ezta?

Umorea oso bide egokia da gauza serioak esateko. Umorearekin agresibitatea kentzen diozu zure diskurtsoari. Euskal Herrian debaldeko agresibitate asko dago, askotan bizkorren lehiaketa batean gaudela ematen du. Automatismo asko ditugu aktibatuta, bestearen kontra hitz egiteko ohitura, adibidez. Umoreak mesede handia egiten duela uste dut. Nire liburuari ere mesede egiten dio, gauza serio asko esaten ditut eta umoreak saneatu egiten ditu diskurtsoa eta nire figura.

Orokorrean, bai politikan eta bai eztabaida sozialetan, umoreak ikaragarri laguntzen duela uste dut. Esaterako, niri izugarri gustatzen ari zait Katalunian CUP nola ari den erabiltzen “orain hasten da mamboa” kontzeptua hain une transzendentalean. Krispazio, akusazio eta irainen maila gorenaren momentuan “mamboa” hasten dela esateak sekulako indarra dauka. Horrek egoera saneatu egiten du erabat. Ematen du parean dauden horiek, hain haserre dauden horiek, ozpindu hutsak direla. Aldiz, “mamboa” hasten dela dioen jende horrek sinpatikoa dirudi. Asmatuko dute edo ez, zuzen edo oker jokatu du te, baina jende sanoaren sinpatia transmititzen dute.

Ni beti saiatzen naiz umorea erabiltzen, bai bertsotan, bai Karidadeko Bentan taldearekin... eta liburu honetan ere umorea osagai garrantzitsua da. Nahia-go nuke Euskal Herriaren bizitza berri honetan umore gehiago izango bagenu.

Euskal Herriaren momentu historikoa aipatuta, baduzu



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



*«‘Abuela’ eta ‘abuelo’
erdaldunen iloba
euskaldunez beteta
dago Euskal Herria.
Haiekiko klixek
jakina egon da.
Nik behar bat
ikusten nuen,
euskalduntasunetik
horri aurre egin eta
beste irudi bat
eraikitzeko»*

gaitasun berezi bat une historiko gorenetan oholtzara igo eta herria zutik jartzekoa. Une latzagoetan, isilagoetan, pribatuagoetan ere kantatu izan duzu. Liburuan hitz egiten duzu zure konpromiso horri buruz.

Askotatik naiz gauza horiekin, gustatzen zait une historikoetan egotea. Historia bizitzea gustatzen zait eta oso suerteko sentitzen naiz, une oso garrantzitsuak bizi izan ditudalako. Niretzat garrantzitsua da herri honen momentu jakinetan baliagarri sentitzea. Askotatik betetzen nau ahal dudana guztia eman ahal izateak. Izugarri gustatzen zait jendea laguntzea, gozatu egiten dut jendea indarra transmititzen, zoriontasuna edota barre eginarazten txikieria batekin.

15-16 urte nituela hasi nintzen politika mailan bertsotan. Oso bakarrik joaten nintzen, trenez, ez dakit nora omenaldi batera, ekitaldi batera, hileta batera... Oso gaztea nintzen eta zenbateraino ez ote nuen kantatuko ekitaldi politiko batean. Ez bakarrik

momentu politetan, denok argazkian atera nahi dugun une horietan, baita bestelakoetan ere, ilunagoak eta bakartiagoak. Nik askotan sentitu izan dut arriskatzeko ari nintzela; kartzelara joateko, etsaiak irabazteko, plazak galtzeko.... Badakit arriskuan jarri dudala nire burua egin ditudan gauza askorekin.

Niri hemengo gatazka politikoarekin fribolitateetan aritzen den jendea jasanezina egiten zait, ez zait gustatzen. Ez zaizkit gustatzen arinkeriaz aritzen direnak, ekitaldi politiko bat edo bestea kritikatzeko... Hemen, benetako min, zauri, hildako, tortura, atxiloketa testuinguru batean, fribolitatez epaitzen aritzen direnak ez zaizkit gustatzen. Eta badago horretarako joera gurean.

Zuretzat garrantzitsuak izan dira plaza politiko horiek. Zalantzarik gabe. Umetatik plaza horietan baliagarria sentitu naiz. Bertsoak leku bat eman dit jendarte honetan, Euskal Herrian bizi izan dudana garaian,

bizi izan dudana eremu soziologikoan... bertsoak leku bat eman dit, batzuetan txikiagoa eta beste batzuetan handiagoa.

«Munduan leku bat» izeneko zure poeman aitortzen duzunez, «abuelak» eta «abuelok» ere eman dizute munduan leku bat. «... nosotros somos tus ramas/ de sentimiento profundo/ que mas nos pudo dar la tierra/ que aceitunas/ y un lugar en el mundo».

Behin barneratu nuenean nire familiaren jatorria eta hasi nintzenean jakiten bere historia, nire *abuela*-ren eta *abuelo*-ren figura garrantzitsua bihurtu zen. Hortik eraiki dut gero nire diskurtsoa. Poema hori aurreko Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz egin nuen. Omenaldi bat egin zien Francoren garaian Euskal Herriera etorritako emigranteei eta hori idatzi nuen. Poema horrek asko eman dit bueltan, asko zabaltu delako eta jende askok duelako. Nik badakit Euskal Herria *abuelas* eta


abuelos beteta dagoela. *Abuela* eta *abuelo* erdaldunen iloba euskaldunez beteta dago Euskal Herria. Haiekiko klixe jakina egon da, Espainiatik datorren guztia txarra den estereotipoa. Etsaiaren figura eraiki da haiei begira, etorri diren guztiak zaku berdinean sartuta, Guardia Zibiletik hasi eta miseriatik ihesi etorri den azken langileraino. Nik behar bat ikusten nuen, euskalduntasunetik horri aurre egin eta beste irudi bat eraikitzeko. Hori da emigrante jatorraren apologia.

Eta bide horren puntu gorena da “Ele! Lorca-Lauaxeta” antzerki lana. Gidoia egin dut eta aktore lana egiten ari naiz. Nolabait, aldarrikatzen dudana da biak ditudala nire baitan, Lorca eta Lauaxeta.

Aipatutako motxila hori ez ezik, berdín astuna den beste bat eraman behar izan duzu bizkarrean: bertso eskolatik sortutako bertsolaria izatea. Umorez jaso dituzu liburuan hainbeste saioaren ondoren entzun dituzunak: «hik ez dek baliyo», «hoi ez dek bertsotan eitia», «bertsolari eskasa haiz», «nahio Agirre 10 minutu aitu pagatuta, zuei ordubete debalde aitzia baino»...

Bere garaian asko sufritzen nuen gauza horiekin. Orain barre egiten dut. Baina orain ez dut zalantzan jartzen nire burua, konfiantza daukat, Euskal Herriko lau final eta gero, garbi daukat bertsolaria naizela. Kostata, baina ja ez dut zalantzan jartzen bertsolaria naizela. Egia da beti oso barreiatuta ibiltzen naizela eta akaso horregatik kostatu zaidala hainbeste. Baina, bertsoa nire etxea da. Beste gauza batzuk egiten ibiltzen naiz, baina beti bueltatzen naiz bertsotara, eta nire etxean sentitzen naiz.

Liburuan garai bat kontatu nahi dut, bertsolaritzak ez urte askoan izan duen transformazioa. Sekulakoa. Konparaketa arin samarra egiten dut Txirritaren umezaroaren, Amurizaren umezaroaren eta nirearen artean. Aldaketa ikaragarria da, sekulako saltoa dago.



Saltoaren adierazle izan daitezke liburuan jasotzen dituzun Lazkao Txikiren hitz batzuk: «Rockanrona, inglesa ta hoi dana drogea dek!».

[Barreak] Horrela esan zidan. Esaldi horrekin kamisetak atara beharko genituzke. Herriz herri bertsotan hasi nintzen, sufritu egiten nuen. Nire buruari askotan galdetzen nion “zer egiten dut hemen?”. Mespretxatu egiten ninduten, askotan ez zidaten ulertzen, ez zegoen ni bezalako inor kantatzeko, ezta entzuten ere, askotan ez nuen ondo ulertzen besteek kantatzen zutena... baina, hala ere, nik segitu egiten nuen. 11 urterekin hasi nintzen bertsotan eta gustatu egiten zitzaidan. Idaztea, kantatzea, adieraztea... Eskolarte-koetan txapel batzuk irabazi nituen gainera, eta nik pentsatzen nuen gai nintzela bertsotan egiteko.

Orduan ni ez nintzen gai ulertzeko zergatik ez nuen gozatzen eta zergatik ez nuen konektatzen. Gerora egin dut atzera begirako analisi bat eta konturatu naiz zein baldintzatan nenbilen. Batetik, nire gaitasuna orain baino askoz eskasagoa zen. Eta, bestetik, ez zegoen interesatzen zitzaidan gairik, ez neukan konplizerik oholtzan, entzuleen artean ez zegoen inor nire kultura partekatzen zuenik, beti nire eremu naturaletik kanpo nenbilen... Bertsolaritza oso euskara itxiko eta giro tradizionalako

Lerro hauen gainean, Jon Maia Eskolarteko Txapelketa garaian Joanito Dorronsororen alboan. Bere ibilbidean pertsona garrantzitsua izan da Dorronsoro. Alboko orrialdean, 97ko Euskal Herriko Txapelketan azken agurra kantatzen eta beste saio batean Irazurekin batera kantuan. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



gauza bat zen. Nik identitate krisi konstante bat bizi nuen.

Krisi horrek goragalea ere sortzen zizun.

Bai, oso gaizki pasatzen nuen. Beti botaka egiten nuen, bizpahiru aldiz akaso. Botaka egin eta zuzenean ateratzen nintzen agurra kantatzera, beti aurpegi zurbilez. Nik uste nuen sekula ez nuela gaingituko hori, urtetan eta urtetan egin izan dut botaka. 97ko finala eta gero gaingitu nuen hori. Horrek eman zidan nik behar nuen konfiantza.

Final hori eta gero sentitu zinen lehenengoz bertsolari?

Bai, Euskal Herriko lehen finala eta gero. Ez da final batera iritsi beharrik bertsolari sentitzeko, baina nik behar nuen. Gure belaunaldia, oro har, kuestionatu samarra zegoen eta belaunaldi bezala behar genuen final hori ondo ateratzea. 2001ekoan ere oraindik kuestionatuta geunden eta behar genuen hori ere ondo ateratzea, bai maila kolektiboan eta baita maila indibidualean ere.


Lehen aipatu duzu plazan sentitzen zenuen bakardadea. Aipatu duzun bertsolari belaunaldi horrekin bukatu zen bakardade hori?

Bai, zalantzarik gabe. Ezaugarri kultural berdintsuak genituen; ETB ikusten zuten umeak ginen, ikastolakoak, antzeko tes-

tu-liburuak genituen, antzeko marrazki bizidunak, euskal rock-and-rolla entzuten genuen, gazte mugimenduetan parte hartzen genuen, mugimendu politiko eta kultural-tan... Bertso eskoletako lehen fruituak ginen. Konplizeak gixela sentitu genuen, nire antzeko jendea topatu nuen, nire kuadrilla.

Liburuan kontatzen dituzu zuk porro batekin egindako performance modukoa edo telebista-ko bertso programa batean Iturriagak, Elortzak, Lujanbiok eta Irazuk Ertzaintzaren kontra egindako saioa eta pintada. Bazenuten ahots propioa goratzeko beharra, ezta?

Guk arrakasta izan nahi genuen betiko bertsolaritzaren baitan; Amuriza, Lopategi, Lazkao Txiki, Azpillaga, Egaña, Peña, Murua... horien denen artean nahi genuen erakutsi bagenekiela bertsotan. Eta, bestetik, bertsoa ez genuen erabiltzen bertso on bat egiteko helburuz bakarrik. Bertsoa tresna subertsibo bezala erabiltzeari eman genion lehentasuna; unibertsitateko asanbladetan, itxialdietan, manifestetan edota telebistako plato horretan kasu. Liburua irakurri duten gazte askok esan didate ez zekitela ezer ETBko kasu horri buruz. Hori gaur egungo jendartearen korrekzio kontestu honetan pentsaezina da ia. Pentsaezinak ziren gauza dezente egin genituen.



Bertsolaritzak bide estuak ibiltzen zituen lehen eta orain bide anitzak eta askotarikoak ibiltzen ditu. Horretan parterik izango ote duzue bertsoa gazte-txeetara edo rock kontzertuetara eraman zenutenek.

Oinarrian bi arrazoi nagusi daude gaur egun bertsolaritzak bizi duen egoeran. Bat, bertso eskolen sorrera da. Hori erabakigarria izan zen. Munduan kokolan dauden ahozko tradizio guztietan formula hori kopiatuko balute, mesede izango litzateke haientzat. Xabier Amuriza izan zen horren burua. Etxeko transmisioan eta tradizioan oinarritu zen zerbait demokratizatu egin zuen. Bertsolari edozein izan daitekeela esan zigun Amurizak; emigranteen umea izan, bankariena, futbolariena, ingurune urbano batean bizi edo mendi kasko batean. Eta, bestetik, Elkartearen sorrera izan zen beste kla-beetako bat.

Bertsolaritzak bere buruaren jabe egitea erabakitzen du bi pauso horiekin eta horiek dira oinarriak. Gero, horiek emandako fruituetatik etorri ginen gu. Nik garrantzitsu jotzen nuen jendeak ikustea nondik datorren orain dagoen bertsolaritzaren argazkia, BECeKo argazkia nondik datorren. Guk ez daukagu meritu berezirik, jaio garen garaian jaio izana baino.

Fermin Muguruzak bere ondolan bertsotara igotzeko esan eta

igotzeko ausardia izatea nahi-ko meritu bada; bertsoak aurretik zapaldu gabeko ohol-tza baitzen hori.

Fermin Muguruza nire idoloa zen. Nire kultura berez hori zen, rock kultura hori, gazte mugimenduen... hor nengoen ni eroso, horrelako jendearekin eta horrelako erreferenteak zituen jendearekin. Erabat bereizitako bi mundu ziren. Pentsaezina zen rock-and-rolla gustatzen zitzaien pertsona bati bertsoak gustatzea. Noski egongo zirela, baina salbuespena ziren. Aparteko bi mundu ziren. Nire inguruko inork ez zuen bertso bat entzuten. Mirari bat zen ni bertsolaria izatea. Faktore askoren gurutzaketaren emaitza zen ni bertsolari izatea.

Nik uste dut hori izan dela bertsolaritzaren azken iraultza handia, 90eko hamarkadaren bueltan bertso eskoletatik-eta sortu dena. Iraultza hori gertatzen da bertsolaritzak kultura garaikidearekin eta jendarte garaikidearekin konektatzen duenean, fosilizatuta geratu gabe. Oso urte gutxitan gertatu da. Joanito Dorronsorok eta hori esaten dute; ikusten zutela oso jende gutxi egiten zuela bertsotan eta bertsolaritzaren eremua murrizten zihoala, landa eremuko jarduerak murrizten zihoazen neurrian. Gu bezalako jendea iristen denean bertso eskoletatik, *in vitro* bertsolariak, gure mundu erreferentzialarekin, gure estetikare-

«Oraingo euskal jendarteko gazteen profil berriek bertsolaritzaz paso egitea posible da; ez badu ezer kontatzen haientzat interesgarria dena eta haiei interesatzeko moduan. Finean, ez badu haiekin konektatzen. Oso txarra litzateke gu izatea modernoak gaur egun»

kin, gure pentsarekin... gure ezaugarriak partekatzen dituen jendearekin konektatzen hasten gara eta hor hasten da zabaltzen bertsolaritza pentsaezina zen jendartearen espektro horretara. Niretzat bertsolaritza gizon zaharren gauza arraro bat zen, gustatuta ere. Bertsolaritzaren azken iraultzaren erretratu hori egiten saiatu naiz.

«Sugandilak ginela pentsatzen genuen, baina kameleoak gara».

Paradoxikoki bertsolaritzaren ezaugarriek oso garaikide bihurtzen dute, eta esango nuke denbora gure alde dagoela. Gure kameleoitasunak formatu askotara moldatzeko aukera ematen digu, egiten duguna edozein adierazpidera egokitze gaitasuna ematen digu... baldin eta bertsolariak kultura eta jarrera hori baldin badu. Beti egongo da bertsolaritza jendartearen trenetik kanpo geratzeko arriskua, ez baldin badoa jendartearen tren horretan.

Oraingo euskal jendarteko gazteen profil berriek bertsolaritzaz paso egitea posible da; ez badu ezer kontatzen haientzat interesgarria dena eta haiei interesatzeko moduan. Finean, ez badu haiekin konektatzen. Oso txarra litzateke gu izatea modernoak gaur egun. Ideala litzateke atzetik datozenak gu baino modernoagoak izatea.

Gaur egungo gazteek apenas ikusten dute telebista; ikusten dutena Internetez ikusten dute nahi dutenean. Entretenimendua modu globalean ulertzen dute. Youtuberrak jarraitzen dituzte eta sareetako *influencers* pertsonaiak kontrolatzen dituzte. Lortuko dugu jende hori bertsoak entzuten jartzea? Egongo dira kultura horiekin edota profil horiekin bat egingo duten bertsolariak? Mundu global honetako joera kulturalekin konektatuta egongo da bertsolaritza datozen 50 urtetan? Edo akaso gure aurrekoekin gertatzen ari zena gertatuko zaio berri? Izkina batean geratu eta fosilizatu?

Txapelketa Nagusiaren atariarian gaude. Batzuek ez zuten uste, baina Jon Maia aurkeztu da.

Batzuek esaten didate zer behar ote dudan. Beharrarena oso erlatiboa da. Nik sentitzen dut ez nagoela txapelketaren arabera. Aurrekoan hartu nuen kolpearekin banuen beldurra, horren arabera nolakoak izango ote ziren hurrengo lau urteak. Baina ikusi dut nire bertso jarduna ez dagoela txapelketaren arabera. Baina ez nuen utzi nahi orduan bezala. Nahiago dut nire gaitasunetik ahalik eta hurbilen aritu eta gero utzi txapelketa, eta ez modu tuntun batean, platano azala zapaldu, irristatu eta lurre-ra erorita.

Eta ez duzu bidean beste platano azal bat topatzeko beldurrik?

Ez. Uste dut badakidala zergatik zegoen platano azal hori hor. Lau urtean ondorioak atera ditut. Gogotsu nago, beldur horietaz liberatuta. Nire helburua izan da prozesuan disfrutatzea eta txapelketak gauza onak ematea niri. Batzuk ja txapelketa hasi baino lehen ziurtatu ditut; erretzeari utzi diot eta kirola egiten dut.

Andoni Egañak lau txapela jantzi ditu, guztiak erretzaile zela. Bai. Eta nik ere erre dut denbora horretan guztian eta ez dut txapelik jantzi. Orain erre gabe probatuko dut.

BIZIPOZA JAIA DERION

Bizitzeko poza, elkartasuna, auzolana eta euskara, herria josteko hariak

📁 JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Bizipoza Elkartera bildu diren 33 elkarteetako kide gehienentzat egunerokoa ez da erraza. Gaixotasun bat, egoera bereziren bat, jendartearen begiraturen bat traba bihurtu zaie. Bihar Derion jaia egingo dute; bizipoza, elkartasuna, auzolana eta euskara edozein min apaltzeko moduko botika direla aldarrikatzeko.

BIZIPOZAREN JAIA

Iraila 17

IGANDEA

ARANTZAZU KALEKO OHOLTZAKO GUNEA

10:00

Elkarteen topaketa.

11:00-13:00

Piko-Piko jolasa BERTOKO ZAMUDIO trikitilari taldea eta IRRORIEN LAGUNAK KLUBeko pertsonaiekin batera.

13:00

«Agurra» oholdtzan. Jarraian TABERNA IBILTARIAko lagunak herrian zehar, eta IRRORIEN LAGUNAK KLUBeko PERTSONAIAK frontoi txikian izango dira elkarteekin.

13:20

KANTARELUX eta LAINOMENDI dantza taldea oholdtzan.

14:00

PIPERDUN flamenko taldea oholdtzan.

14:15-15:00

TABERNA IBILTARIAko lagunak oholdtzaren gunean.

16:00

KALE DOR KAYIKO elkartearen tailerra gunea (kaxoia eta palmak jotzen ikasteko aukera paregabeal).

16:30

ANE ETA PIRATAK PARRANDAN dantzaldia Bizipozako elkarteekin batera oholdtzan.

17:30

Txokolatada

18:00

Jaiaren amaiera.

KIROLDEGI BARRUKO GUNEA

11:30

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTSen «Tipi Tapa Korrika» ikuskizuna.

15:00

KUKUKE antzerki eskolaren dantzaldia.

15:20

URREZKOA SAGARRA (Josu Camara ipuin kontalaria, KUKUBILTXXoren eskutik).

FRONTOIEN GUNEA

Frontoi txikian:

BIZIPOZAKO ELKARTEAK ezagutzeko aukera egun osoan zehar.

Frontoi handian:

14:00etatik 16:00etara bazkaria.

FUTBOL ETA TENIS ZELAIEN GUNEA

- IRRORIEN LAGUNAK KLUBeko puzgarriak.
- BBK Fundazioaren eskutik: Rokodromoa eta ohe elastikoak.
- Derioko AMPAren eskutik tailerrak.

ARANTZAZU KALEKO BEHEKALDEKO GUNEA

- ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAren eskutik: giza-futbolina, futbol-txapa (iturriak), marrazki tailerra, aurpegiak margotzeko gunea...
- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOAren eskutik tailerrak

Elkarteen elkartea da Bizipoza Elkartea eta Euskal Herriko izaera bereziko 33 elkarte biltzen ditu bere baitan. Bere leloak garbi agertzen du elkartearen arima: “Munduak guztiontzat behar luke”. Baina, tamalez, inguratzen gaituen munduan beti ez dira kabitzen errealitate guztiak, nahiz eta guztiak mundu horretakoak izan. Hutsune hori ondo ezagutzen dute Bizipoza osatzen duten elkarteek. Askotarikoak dira eta haien beharrek eta minak ere halakoxeak dira, askotarikoak. Horregatik elkartu dira Bizipozaren baitan, indarguneak indartzeko eta ahulguneak ahultzeko.

Tourette sindromea, minbizia, fibrosi kistikoa, bihotzeko kardiopatia, Sanfilipporen sindromea... gaixotasun ugariaren inguruan lan egiten duten elkarteak biltzen dira Bizipozan, eguneroko bizitza zailtzen dieten trabak gutxitzeko elkarlana sustatzeko helburuz. Bestelakoak ere badaude; guraso bananduen elkarteak, Harrera familien elkarteak, Chernobilen Lagunak, Etiopia Utopia Fundazioa edo genero identitatearen inguruko elkarte-

ak kasu. Batzuetan ez baita gaixotasun bat bizitza zailtzen duena, egoera bat eta jendarteak egoera hori begiratzeko duen modua baizik.

Kasu guztietan «bizipoza» da botikarik onena. Gure Señeak elkarteke Luisma Landaluzek nabarmendu duenez, «egoera zaila edo gogorra izanik ere, kalera atera beharra dago. Bizitzaren poza da indarra, motorra, nahiz eta egunero ohetik altxatzean bizitza erraza ez dela konturatu eta trabak garrantzitsuak izan. Bizipoza bizitzaren aurrean dugun jarrera bat da. Bizipoza elkarteak eta hor gauden guztiok hori bultzatzen dugu. Beste mundu bat posible dela defendatu nahi dugu. Sarritan egoera zailen aurrean sufrimendua na-

Pasa den urtean Usurbilen izan zen Bizipoza jaia. Irudian, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldiaren une bat. Aurten ere pailazo ezagunek ez dute hutsik egingo Derion.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

barmentzen da eta horrek ez dio laguntzen ez pertsonari berari ez ingurukoei ere». Bizitzaren alde baikorraren apologia da, beraz, elkartearen bizkarrezurra. Hortik aurrera, desberdinak izatearen aberastasuna, euskara, elkartasuna eta auzolana dira Bizipozaren zutoinak.

EGUN GUZTIKO JAIA

Bizipozaren baitako elkarteek egunero eta urteko egun guztietan egiten dute bizitzeko poz horren aldarrikapena; batzuetan arrakasta gehiagor. Baina urtean behin guztiak elkartu eta beren baloreak kalera ateratzeko ariketa egiten dute Bizipoza jaietan. Aurten hitzordua bihar dago jarria, Derion.

Egun guztiko festa eskainiko du Bizipozak eta prestaketa lanetan boluntarioen lana «ezinbestekoa» izan dela nabarmendu dute. Biharko hitzorduan ere ez da boluntariorik faltako dena prestatu bezala atera dadin. Jaiaren helburua «ondo pasatzea» izango dela nabarmendu dute. Eta, bide batez, «bizipoza, elkartasuna, euskara eta auzolana» herri bat eraikitzeko zimendu apartak direla gogoraraztea.



Ikusgarria

Miren Azkarate
Badiola

Pasa den igandean naturak duen indarraren irudiak eta ondorioak ikusi ahal izan genituen hemen Euskal Herrian eta Atlantikoaren beste aldean. Begi batez Donostiako badian jokatzten ari ziren estropadak ikusten aritu nintzen, eta, bestearekin, Karibeko irletan gertatzen ari zena.

Kantauri itsasoa zakar zegoen, bi metro-tik gorako olatuak eta haize bortitza. Ondorioz, aurtengo Kontxako estropadak, ikusgarriak ez ezik, arriskutsuak ere izan dira. Beldurra ematen zuen telebistaz ikusteak, eta, bertatik bertara, protagonisten hitzei erreparatuz, beste horrenbeste. 2017ko estropadak bertan behera geratzekotan izan ziren, beraz, broma gutxi!

Gisa honetako beste Kontxako Bandera bat gogoratzeko urteak egin behar dira atzera. Segundo batez trainerua ikusi eta ondorengo bostetan ez, hegan aterako ziren inpresioa batzuetan eta ondoratuko

zirenarena besteetan. Ausardia behar da gero horrelako itsasoarekin arraunean egitera ateratzeko, eta egun horretan itsasoratu ziren emakume eta gizon guztiek hori erakutsi ziguten. Naturaren enbaten aurrean gizakia zein txikia den ikusi genuen beste behin ere, eta, zorionez, ez zen ezer larririk gertatu, edozer gertatu ahal zelako (eta ez naiz soilik emaitzez ari).

Hala ere, ezin uka ikuskizun paregabea izen zela irailaren 10ean Santa Klara uhar-tearen eta Aquariumaren tartean gertaturikoa. Irudi zoragarriak eta ahaztezinak izan ziren.

Aldiz, munduaren beste puntan gertatzen ari zenak ahaztezinetik bai, baina zoragarritik ezer gutxi zuen. Egunak generamatzan “Irma” urakanaren zain, egunero entzuten komunikabideetan zein bide hartuko zuen, nondik pasako zen eta zein indarrekin. Behin pasata, aldiz, Miamitik soilik pasatu den sentsazioa dut. Kuban

eta gainontzeko Karibeko irletan zer gertatu den jakiteko bertako komunikabideetara jotzea besterik izan ez dugulako bertakook. Minutuz minutu eta zuzeneko konexioekin irentsi dugu Floridako estatuan “Irma” urakanak eragindako triskantzak, gainontzeko lekuetan eragindakoak garrantzirik izango ez balu bezala.

Kezkak eta jakin-minak Kubako hedabideak arakatzera eraman nau eta azken urteetan igaro den urakanik bortitzena bezala definitu dute. Ez diot nik, bertakoek diote. Irla horretan eta inguruan dauden guztiek orain beraien esku eta baliabideekin bakarrik egin beharko dute aurrera, beste inoren laguntzarik gabe. Eta urakanen denboraldia hasi besterik ez da egin, orain “Jose” izenekoa gerturatzen ari zaie...

Naturaren indarraren aurrean txikia da gizakia. Ikusgarria izaten ari da, baina, oso gogorra, aldi berean, beste begiak ikusi duena. •

Batasun emozionala

Antton Izagirre

Gertakari handi, ospetsu eta historikoetan, tokian bertan lekuko izan direnek, maiz, «ni han nintzen» esapideaz lekukotasunaren handitasuna eta garrantzi historikoa nabarmendu izan ohi dute. Nolabait adierazi nahian, gertakizun hura etorkizunerako erabakigarria izan zen konbentzimendu osoa.

Aurtengo Diadatik bueltan, han ikusi eta bizitakoak gogoan, konbentzimendu bertsua izan dugula aitor genezake. Kaleak bete dituzten ehunka milaka lagunek erakutsi digute haien ilusioa eta ziurtasuna nekez zangalatraba lezakeela indarra eta mehatxu ugari eta akordiorako konfiantza gutxi eskaintzen duen espainiar Estatuak. Oso gutxitan bezala agintari politikoak eta galdeketa aldeko

herri mugimenduak norabide berean ari direla erakutsi dute. Agintari politikoak, *president*-a bera buru dela, emandako hitza betetzen ari dira, eta, herritarren sinisgarritasuna irabazita dute; hala, gaurgaurkoz, inork ez du espero azken orduko traiziorik.

Batasun emozional hori inbidiaz begizatatu dugu hemendik joandako euskaldunok. Beso zabalik eta esker onez hartu gaituzte kaleetan, baina haserre ere erakutsi digute gure politikoek haien interesak zapuzteko hartu duten jarreragatik. Gogorazi digute PNVko politikariek PPren Gobernuari ematen dioten babesa, nola babes horri esker, haien aurka eraso betean ari diren.

Behin eta berriz esan behar izan diegu ez garela euskal herritarrok horren eran-

tzuleak, euskal herritarren gehiengoa Herrialde Katalanen aldekoak garela eta haien irmotasuna txalotzen eta goresten dugula, PNVren saldukeriak lotsa sentiarazten digula. Esan diegu, orain haiek abian duten bidean elkar hartzea amesten dugula, eta, berandu baino lehen, agian, elkarrekin estatu zapaltzailearen egiturak iraultzea eta belaunaldi berriak horren lekuko eta hartzaile izatea aurreikusten dugula.

Diadaren biharamunean, espainiar Estatuaren egitura guztiak, politikoak, polizial eta juridikoak eta baita komunikatiboak ere, erasorako prestatzen ari direnean, euskal herritarroi katalan herriaren defentsan, irailaren 16an, Bilboko kaleak betetzeko konpromisoarekin erantzutea dago-kigu. •



Arraunean markak hausten darrai Andrea Oubiña. GAUR8

infraganti ANDREA OUBIÑA

Kontxan zortzi aldiz lehiatu eta zortzietan gailendu da Andrea Oubiña. Besteak beste, bost Euskotren Liga ere poltsikoratu ditu. O Grovekoa garaipenaren ziurtagiri da. 2015etik San Juanen ari da, Galiziako traineruan hasitako ibilbidea are gehiago apaintzen. 27 urte betetzear da eta, dena irabazi duen arren, ez zaio arraunerako grina apaldu.

Kontxako erreginaren deitura jarri izan diote 2015ean seigarren aldiz Donostiako badiara garaila izendatu zenetik. Orduan jada marka hautsi zuen Andrea Oubiña (O Grove, 1990), baina galiziarrek irabaz-

ten darrai. Pasa den igandean zortzigarren aldiz altxatu zuen hiriburu gipuzkoarreko banderaren haga. «Zortzigarrena», dio, hausnarketarako denbora hartuz eta irribarre txikiarekin. Aurreneko jardunaldian Hibaikak bi segundo eta 67 ehunekoren abantaila lortu zuen. Pasai Donibaneko «Batelerak», aldiz, ero-

soago sentitu ziren jardunaldi erabakigarrian, azkenean eta orotara Errenteriakoak baino 14 segundo bizkorragoak izanik.

Itsasoa oso haserre zegoen igandean eta horixe izan zen hizpide nagusia, Koxtaperen garaipenaren gainetik. Hiru metro pasatxoko olatuen artean aritu ziren denak ala denak, erlojupeko formatuan. Oubiña onartu du errespetuz hartu zutela itsasoa, «baina irabaztea besterik ez geneukan buruan, Hibaikari hiru segundo jatea zen gure helburua, kosta ahala kosta». Lortu zuten, eta, galiziarren ustez, itsaso mugitua lagungarri izan zuten, «aurten eroso sentitu baikara baldintza horietan».

Emakumeen estropada erlojupeko formatuan egitea erabaki zuten azkenean –bertan behera geratzeko arriskua ere egon zen– eta Oubiña dio une oro ongi informatuta egon zirela. «Ez dakit erlojupekoa egitea ona edo txarra izan zen, dakidana da modu horretan guztiok baldintza berdinetan aritu ginela. Alde horretatik ez da aitzakiarik».

Barnean daraman lehiakortasuna agerian uzten du O Groveko arraunlariak. Kontziente da garaikur ugari eskuratu dituela. Zortzi Kontxako Bandera lortzeaz gain, bost Euskotren Liga ere irabazi ditu, eta Espainiako bi txapelketa. Hori, gainera, traine ruarekin, trainerilla edo bateletan ere hoge garaikurretik gora lortu baititu. Ibilbide arrakastatsuak O Groveko Centola de Ouro garaikurra jasotzera eraman zuen iaz, eta bere herriko kirolari onena izendatu zuten 2014an eta 2015ean. «Kontziente naiz baina ez diot gehiegizko garrantzirik ematen. Irabazteko ari-tzen gara eta bizitzeko modu bat bihurtu da jada, aktibo mantentzen nauen zerbait».

KASUALITATEZ HASITAKO IBLIBIDEA

Arraunean hasteko hautua 12 urte zituela egin zuen: «Lagunek batela osatzeko pertsona bat behar zuten eta animatu egin nintzen. Gero adiskideek utzi egin zuten eta nik bakarrik jarraitzen dut! Pasio bilakatu zait arrauna». Kasualitate hutssez hasi ostean, zailtasunei au-

rre egiten jakin du jarraitutasun bat edukitzeko, burugogorke-riak eramanda. «Talde gabe geratu nintzen, Vigoko Nautikotik deitu zidaten eta bertara joan nintzen. Gerora, unibertsitatean hastean, arrauna alde batera utzi zuten taldekideek eta azkenean Meirara joan behar izan nuen. Beti ibili izan naiz hara eta hona». Galiziako ontziarekin lehiatu zen 2008tik 2015era bitartean, San Juan Koxtaperen deia jaso zuen arte.

«Betidanik izan dut hemengo talde baten lehiatzeko ilusioa, baina ez nuen pentsatzen deia jasotzera helduko nintzenik», aitortu du, ez baita ohikoa. «Ez nuen zalantzarik izan eta ez zitzaidan kostatu eskaintza onartzea, hemen arrauna nola bizi den ezagutu nahi nuen, bertatik bertara. Familiak ere asko babestu nau; badakite zer suposatzen duen arraunak nire bizitzan eta unea aprobetxatzeko 'agindu' zidaten», azaldu du.

Behin eta berriz aipatzen du arraunak Euskal Herrian duen hedapena. Inbidia sana sentitu izan du eta 2015etik horren parte izateak asko poztzen du. «Galizian gizartea ez dago hain inplikaturatuta arraunarekin, beste kirol batzuek dute garrantzia. Han inori ez zaio bururatzen balakoian arraun taldeko ikurra jartzeari; Pasai Donibane, ordea, arrosaz beteta dago! Kirola bizitzeko modu ezberdinak dira. Herri txikia izateak ere laguntzen du hurbiltasun horretan».

Igandean «Batelerak» ontziak laugarren Kontxa irabazi zuen, guztiak errenkadan, eta herri guztia ospakizunean murgildu zen. Bazkalostean Maialen Arrazolak zuzenduriko arraunlariak udaletxean jaso zituzten, herri-tarren txalo artean. «Ondoren herrian egon ginen pixka bat, eta, gero, Donostiara joan ginen ospatzera». Lana tarteko, ospakizuna ez zen asko luzatu Oubiñaren kasuan. Lana eta kirola tartekatzea ez da berritasuna arraunean, are gutxiago emakumezkoetan. «Gogorra da eta eragina du. Egunaren bukaerara nekatuta iristen zara, baina merezi du, pertsonalki konpentsatzen dit. Egiten dudanak bere ordain-



Gipuzkoako Txapelketa, Gipuzkoako Liga eta Euskotren Liga irabazi ditu aurten Pasai Donibaneko «Batelerak» traineruak. Denboraldia, gainera, Kontxako Bandera eskuratuz amaitu dute. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

saria duela ikusteak guztiz asebetetzen nau».

Neguan jaioterrira itzultzen da, maiatzeraino. Bi hilabeteko atsedendia izaten dute eta azaroaren aurreneko astean hasten dira entrenamenduekin. Azpimarratu du neguko entrenamenduak gogorak izaten direla, «gutxienez bi ordu pasatzen baititugu gimnasioan. Nire saio guztiak entrenatzaileari pasatzen dizkiot, berak jakin dezan nola nabilen. Jasangaitza dirudi, ergometroko pantailako irudiekin betetzen baitut mugikorra –dio barre artean–, baina, benera, justuak izateko, logikoa deritzot entrenatzaileak kontrol hori eramateari».

AURRERAPASORIK EZ

Jasangaitza den moduan berdintasunaren bidean aldaketa esanguratsu gutxi ematea. «Azken hamar urteotan ez da eman aurrerapausorik. Egia da aurten Kontxako saria 6.000 eurotik

15.000era pasatu dela, baina Euskotren Liga irabazteagatik 8.000 euro eskuratzen ditugu, gizonak estropada bakarra irabazteagatik 3.000 euro pasatxo poltsikoratzen dituzten bitartean». Gizonak jende gehiago erakartzen duten jakitun, astean eginiko lana parekoa izanik esfortzua balioestea mintzo da.

Dena den, diruaren eztabaidatik harago doa desberdintasunaren auzia. Euskotren Ligak zortzi estropada soilik ditu. «Nik neuk ez dakit ondo zergatik. Irristada batekin liga gal dezakezu, ez daukazu hobetu edo sailkapena iraultzeko tarte handirik, alegia».

Lehen arraunkadak 12 urte zituela eman zituen. Kasualitatez hasi zen, lagunak batela osatzeko pertsona baten beharra zutelako. Ordutik, baina, berak bakarrik jarraitzen du arraunean

«Euskotren Liga irabazteagatik 8.000 euroko ordainsaria jasotzen dugu, gizonak estropada bakarrean nagusitzeagatik 3.000 euro pasatxo poltsikoratzen dituzten bitartean»

«Estropada gehiago edukitzeak gastu gehiago eskatzen du, eta badakit gizonen aurretik lehiatzean beraiei beroketa ariketak egitea oztokatzen diegula», zehaztu du naturaltasunez.

«Bestetik, Galiziara ez gara inoiz joaten, daukan kostuagatik, eta betiko lekue-tan aritzen gara. Horrela da eta horrela behar duela dirudi».

Gipuzkoako Liga, Euskotren Liga (8 banderatik 7 poltsikoratuta), Gipuzkoa-

ko Txapelketa eta Kontxako Bandera irabazi dituzte amaitu berri den denboraldian. «9ko nota jartzen dut, ez gara perfektiora heldu. Euskotren Ligako

bandera denak irabazi nahi genituen eta lehen jardunaldian Hibaikaren eskutik ezustekoa jaso genuen, beraz, helburua ez dugu guztiz bete. Euskadiko Txapelketan ere kale egin genuen, ilusio berezia bageneukan ere. Kontxako lehen igandean ere Hibaika nagusitu zitzaigun. Galdu ditugunak estropada esanguratsuak izan dira eta mina eman digute porrotok».

Hibaikak estutu du San Juan azken bi urteetan –Telmo Deurenaren desagerpena geroztik– eta Orio ere gutxika-gutxika hurbiltzen doa, «oraindik pauso bat beherago dagoen arren». 27 urte beteko ditu azaroan eta bere unerik gozoenak Gipuzkoan pasatu zituela aitortu du. Grinatsua dago beste urtebetez jarraitzeko, baina ezin du ziurtatu, «lanak baldintzatuko du-eta erabakia». Arraunarekin ez da nekatu, irabazteaz nekatu ez den legez. •

Ane URKIRI ANSOLA

Katrin Arzuaga Oñaederra

EHUK eta UEUK antolatutako «IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan» graduondokoan graduatua eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako biologia eta geologia irakaslea

Simulazioak eta laborategi birtualak

Zerez osatua dago unibertsoa? Nola mugitzen dira astroak? Zergatik da zerua urdina? Zientzialariak galdera horiei guztiei erantzuna bilatzen saiatzen dira.

Horretarako metodo zientifikoa erabiltzen dute, eta behaketa, ikerketa eta esperimentazioa dute lan ardatz nagusia. Beraz, nola liteke zientzia irakasten edo ikasten dugunean arlo horretan funtsezkoak diren esperimentazioa eta ikerketa alde batean uztea maiz, teoriari eta edukiei lehentasuna emanez? Askotariko arrazoiak daude: denbora eta baliabide falta, eduki luzeegiak, laborategiko segurtasun arazoak... Gabezia hori ekiditeko, informazioaren eta komunikazio teknologiek (IKT) eta, konkretuki, laborategi birtualek eta simulazioek, ate berri bat zabaldu digute, ikusi ezin dena ikusteko eta laborategian esperimentatu ezin dena birtualki egiteko.

Azken urteetan ikerlari eta hezitzaile anitzek adierazi dute natur zientzien ikasketak krisian daudela, horren erakusle dira, adibidez, Europar zientzia arloko goi ikasketak aukeratzen dituzten gazteak nabarmen gutxitu direla; edo PISA probako azken emaitzetan zientzietarako konpetentziak izan duen jaitsiera kezkagarria. Krisi horren arrazoiak anitzak dira: eduki luzeak, sakonak, garaira eta ikasleen interesera ez egokituak; teoriar ardaztutako zientzia klaseak, kontzeptuak modu abstraktuan landuz eta ikerketa, behaketa eta esperimentazioa alde batera utziz; eta, azkenik, zientziak errealitatearekin duen erlazioa eta gizartean duen garrantzia ez uztartzea. Horren ondorioz, ikasleek zientzia ikasgaiak zailak eta alferrikakoak direla pentsatzen dute, beren bizitzetan ezertarako balio ez dutela, eta jarrera hori zientzia irakasten eta ikasten dugun erarekin lotuta dago.

Baina, IKTek zientzia irakasteko eta ikasteko era alda dezakete, hau da, didaktika berritzaileago eta motibagarriagoak gauzatzen lagun dezakete. Izan ere, zientzia ikasketak ikasleen interesei gerturatu, teoria praktikotasunetik ikasi eta metodologia berritzaile eta erakargarriak garatzeko aukerak eskaintzen dizkigute. Baliabide digital anitz daude: bideoak, infografiak, entziklopedia digitalak, webkamerak, errealitate area-

gotua... Baina, diziplinan ezinbestekoak bihurtu direnak laborategi birtualak eta simulazioak dira.

Zer dira laborategi birtualak eta simulazioak? Lau mota desberdintzen dira, baina guztien helburua ikerketa, esperimentazioa eta ikusi ezin dena ikusaraztea da.

Laborategi birtualak: Laborategi errealean garatzen diren egoerak simulatzen dituzten gune edo programa informatikoak dira. Hau da, laborategi fisikoan ditugun tresnak daude, eta bertan gauzatzen ditugun esperimentuak egin daitezke, baina gune horietan dauden arriskuak ekidinez.

Simulazioak: Simulazioek naturan gertatzen diren eredu-sistemak irudikatzen dituzte ordenagailu edo gailu informatikoetan. Hainbat parametro alda daitezke, eta aldaketa horiek sisteman duten eragina azter eta uler dezakegu. Ondorioz, esperimentatzeko eta ikertzeko gaitasuna bermatzen da.

Urrutiko laborategiak: Ordenagailu edo gailu informatikoekin birtualki urrutian dauden laborategietako tresnak edo ekipoak erabiltzeko eta manipulatzeko aukera eskaintzen dute. Laborategian behar ditugun errekursoak eta materialak murriztu ahal ditugu.

Ordenagailuari konektatutako laborategiak: Laborategi zientifikotik ordenagailuak sentsore fisikoak kontrolatzeko eta datuak biltzeko eta irudikatzeko erabiltzen dira. Laborategiko ekipo askok ordenagailua dute inte-

gratuta, eta horri esker: esperimentueta-ko datuak bildu eta interpreta daitezke, grafikoak egin, simulazioak sortu eta beste hainbat erabilera ikasleek esperimentua egiten eta ulertzen laguntzen dutenak.

Sarean mota horietako baliabide digital ugari dago, eta azken urteetan hobekuntza eta berrikuntza ikaragarria jasan dute. Unibertsitate, erakunde publiko eta enpresa pribatu anitzetan garatzen ari dira zientzien didaktikan duten garrantzia eta etorkizuna dela-eta. Horietako asko euskaraz daude, sarean doan eskura daitezke, erakargarriak dira eta hezkuntza kalitatea bermatzen dute.

Baina ikasketa esanguratsua garatzen laguntzen dute? Galdera horri erantzun nahian hainbat ikertzaile eta unibertsitate lanean ari dira. Hain zuzen ere, Coloradoko Unibertsitateak aurrerapauso nabarmenak egin ditu arlo horretan PhET Interactive Simulations proiektuaren baitan. Bertan, simulazioa eta laborategi birtual anitz eskaintzen dira hainbat hizkuntzatan, euskara barne, eta horiek ikasketa prozesuan duten efektua eta gelako dinamika egokiak eta eraginkorrak zehazteko hainbat ikerketa argitaratu dituzte. Horiei esker ondorioztatu dute simulazioak kontzeptuak eta teoriak ulertzeko eraginkorrak direla, eta ikasketa esanguratsua bermatzen dutela, baina hainbat arrisku ere badituztela. Lehena, ezin dutela laborategi fisikoa ordezkatu, hainbat gaitasun laborategi errealean soilik garatu baitaitezke, eta bigarrena, erabilera ez egokia eginez gero kontrako emaitzak lortu ahal ditugula. Horren harira, beste ikerketa batzuek adierazten dute, kalitatezko laborategi birtuala edo simulazioa aukeratzea bezain garrantzitsua dela hori nola eta zertarako erabiltzen den pentsatzea eta diseinatzea. Ikerketa horietan, laborategi birtualak eta simulazioak modu eraginkorrean eta egokian erabiltzeko gomendioak zehazten dira.


Beraz, saia gaitetzen IKTek eskaintzen dizkiguten aukera berritzaileak modu egokian eta esanguratsuan erabiltzen, eta zientzien didaktika era erakargarrian eta motibagarrian gauzatzen. Laborategi birtualek eta simulazioek teoria praktikotasunetik irakasteko eta ikasteko aukera eskaintzen dute, hau da, egitetik ikastearen atea zabaltzen dute, ikusi ezin dena ikusaraziz eta esperimentuak eta ikerketa ikasketaren ardatz bihurtuz. Horiei esker, zientzietako ikasgelak guztiz eralda daitezke, eta metodo zientifikoa ikasketa prozesuaren protagonista bihurtzeko aukera eskaintzen digute. Gogoratu dezagun Konfuzio filosofoak esan zuena: «Kontatu egin zidaten eta ahaztu egin nuen; ikusi nuen eta ulertu nuen; egin nuen eta ikasi nuen». •



IKTek aukera berriak dakartzate zientzien didaktikara.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jose Luis Plazaola. Oñati

OTEIZAREN HAMALAU APOSTOLUAK, AREKATIK FRISORA

1951n hasi ziren Arantzazuko basilika berriaren eraikuntza lanak. Apostoluen eskulturen ardura Jorge Oteizak zuen. 1954an, Oteiza, Basterretxea eta Lara egiten ari ziren lanak geldiarazteko agindu zuen Donostiako go-tzain Jaime Font Andreuk, eta 1955ean proiektua behin betiko eten zen. Oteizaren apostoluak arekan botata egon ziren zenbait urtez. 1968an, Elizbarrutiko Batzordeak betoa kendu ondoren, Oteiza lanean hasi zen Arantzazun. 1969ko ekainean, haren hamalau apostoluak frisoan jarrita zeuden, eta urte bereko urriaren 21ean Pietatea jarri zuen fatxadaren gainean. Irudian, Jorge Oteiza ageri da aldamioan, apostoluak jartzen. Argazkiaren egilea Oteizaren lagun Jose Luis Plazaola oñatiarra da. Haren familiak apostoluak kokatu zituzteneko irudi ugari gordetzen ditu. Bere anaia Benignoren eskutik hasi zen argazkigintzan, Eibarren. 1950ean bere estudioa zabaldu zuen Oñatiko Kalebarria kalean, eta batez ere erreportaje sozialak egin zituen. 1996an hil zen.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*